



PROSTITUTAK

Zergatik iraindu hainbeste
desiratzen dena?



- **Nafarroa Oinez** Artearen bidez sormenari hauspoa eman diote Zangozako ikastolan
- **Mahai-ingurua** Asier Blas eta Iñaki Antiguedad independentziaren korapiloak askatzen
- **Oskar Estanga**, bertsolaria «Nire kezka, alor guztietan, eredu osasuntsuak lantzea da»
- **Transmisioa** D ereduan ikasi duten gurasoen gehiengoak euskara hutsez egiten du seme-alabekin

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIAren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikarle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko urriaren 12a, 2.432. zenbakia

ASTEKO GAIA

PROSTITUZIOA Atzo eta gaur estigmak harrapatuta.
IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 4

PERTSONAIA

OSKAR ESTANGA: «Bertsolaritza meza berria da».
REYES ILINTXETA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Ander Deuna ikastola,
autogestiotik kooperatibara. LIDE HERNANDO / 15

NAFARROA OINEZ Murala, sormena lantzeko proposamen
kolektiboa. SAIOA ALKAIZA GUALLAR / 16

IRITZIAREN LEIHOA

INPERIALISMO GORDINA ASIER BLAS MENDOZA / 20

SOKATIRA KOLDO ALDALUR / 22

TRADIZIOAK ETA ANIMALIAK IMANOL ALVAREZ / 23

EUSKAL LOMCE-K LABURRA DU BIDEA

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN «Ez dut inoiz ezer irabazi». KATTALIN MINER / 22

ZIRTA Giz*ntasuna. ANGEL ERRO / 24

ERDIKO KAIERA

MARKEL ORMAZABAL: «Ez da gauza bera 'espetxeak euren jabeentzat' edo 'espetxeak apurtu' oihukatzea».

ITZIAR UGARTE / 26

‘SALTO’ ANTZEZLANA Bizitzan ematen diren jauziez,
bakarrizketa poetikoa. MYRIAM GARZIA / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Ia inon ageri ez den zinema. MYRIAM GARZIA / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

MAHAI-INGURUA Burujabetzarako bide-orririk ez Euskal
Herriko mapan. URKO APAOLAZA AVILA / 40

EUSKARA D EREDUAN IKASI DUTEN GURASOAK

%73k euskara hutsean egiten du haurrekin. SAIOA LABAKA / 44

ETXEGABETZEAK Galtzeko ezer ez zeukanean irabazi du

Urko Rodrigok. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Langilea hil da *karoshiak* itota: Japoniako
epidemia. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Atzo eta gaur estigmak harrapatuta

Prostituzioa garrantzitsua izan da Euskal Herriaren historian, hala ere, oraindik tabuari eta estigmari lotuta dago erabat. Erabaki librea denean ere, zailtasunez betetako lanbidea da, ikusezina ia.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

EUSKALDUNEN izaera lotsatia, lasaia, zorrotza eta barrenkoa dela esan izan da, eta horrek ez du prostituten lana ordaintzen duen ohiko bezeroaren antzik, ez behintzat buruan sortzen zaigun irudiarekin. Baina, leku guztietan bezala, Euskal Herriko historian ere, leku garrantzitsua izan du prostituzioak. *Historia de la prostitución en Euskal Herria* izeneko liburuan (Txalaparta) Charo Roquerok, Historia Modernoan eta Zientzia Politiko eta Soziologian lizentziatuak, horren inguruko xehetasunak azaldu ditu. “Euskal Herrian prostituzioa jasoagoa zen; ez zegoen leihora gerturatzen zen sexu langilerik, gordeagoa zegoen”. Moral erlijiosoaren garrantzia izugarria zela dio Roquerok, eta horrek eragina zuela: “Parrokia zen arau guztiak ezartzen zituen herri txikietan, egunerokoari loturiko arauak; eta etxeko andrea zen beti alabaren gainean zegoena eta tradizio kultural errotuenak mantentzeko lan egiten zuena, jarrera zorrotza izaten zuen maiz”.

Hori horrela, emakumearen birjintasunak esanahi oso garrantzitsua zuen gizartean. Hori galtzen zen unean, emakumeak izan zezakeen arrakasta galdu egiten zuen. “Imajinatu hiru alabako familian gaudela, lehenengo biek dotea dute, baina hirugarrenarentzako dirurik ez dago baserrian. Kasu ugartan, neska gazteei gizonek ziurtatzen zieten birjintasuna haiekin galtzearen truke ezkontzeko eskatuko zietela, eta gero hori betetzen ez bazuten epaitegietara eramane eta gizonak emakumeari kopuru bat ordaindu behar izaten zion”, azaldu du idazleak. Ondorioz, dotea beste era batera lortzen zuten neskek, eta azkenean ezkontzeko aukera izaten zuten. Halako prostituzio kasuak ohikoak ziren, eta artxiboa beteta dagoela dio Roquerok.

DANI BLANCO



Prostitutaren irudi orokorrari buruz ezin da hitz egin, batzuen eta besteen egoera oso ezberdina zelako. Hainbat mailatakoak zeuden, sarri neskame izandakoak sartzen ziren prostituzioan. Euskal Herrian kontrol handia zegoen moral erlijiosoari lotuta, horren ondorioz, prostitutak ez zeuden kalean; *odolaren garbitasunak* garrantzi itzela zuen. Baina emakume librea ere bazegoen, hori bai, oso gaizki ikusia, herrian emakume biziotsu gisa hartua. “Legeak zeuden haien aurka, eta espetxeratu ere egiten zituzten”. Hiri gunean eta landa gunean ezberdina izaten zen. Horrez gain, soldatuak hirian izateak ere eragina izaten zuen; prostituta kopurua altuagoa zen eta Donostia da horren adibide argia.

XIX. mendean, araututa

Bekatugile gisa ikustetik arazo gutxi sortzen dituen emakume bezala ikustera pasa ziren XIX. mendean. “Gizarteak emakume hauen beharra zuen; euren lanari esker indarkeria eta bortxaketa kopurua jaitsi egin ziren eta emakumeek gizonekin zuten elkarbizitzan lasaitasuna handitu zen harreman sexuali dagokienez”. Azken batean, gizonak bere “beharrak” askatzeko bidea zen prostituzioa. Hala, gizartea positiboki ikusten hasi zen prostituten lana. Puteixak ere sortu zituzten.

Hasieran debekatuta zegoen prostituzioa, gero, arautzea etorri zen, baina guztia gizonen ongizateari begira egin zen. Industria Iraultzaren garaian, Espainiatik Euskal Herrira migrazio handia egon zen, batez ere Bizkaira. “Bilbora, esaterako, barruko arropa koloreduna iritsi zen, eta hori izugarria izan zen”, dio Roquerok. Ezberdintasun sozial handiak sortzen zituen horrek; egoera ekonomiko kaskarra zutenak zeuden batetik, eta komertzioa zuten kapitalista berriak bestetik. Gune bereziena, prostituzioari dagokionez, Gasteiz zen, ezkutatuena han zegoen. “Bizilagunek ordu jakinetan sartu-irtenak ikusi izan zituztela diote datuek, ez dago besterik”.

Gainera, gizarte maila ezberdinen artean ez zegoen elkartasunik. “Norberak bere burua salba dezala, pentsatzen zuten”, adierazi du Roquerok. Kondena izugarria zela ikusi du artxiboetan. “Emakume bati gerta ziezaiokeen gauza okerrenetakoa hartaz esan zezaketena zen, emakume baten prestigioarekin eta bizitzarekin amaitu zitekeen horrela”.

Prostitutak hiritik botatzen zituzten, eta ez edonola. “Eztia jartzen zitoten gorputzean, gerritik gora biluzten zituzten eta asto baten gainean herriaren irteeraraino eramaten

zituzten herritar guztiek”. Moral bikoitza izugarria zen. “Maitale edo prostituta ezagunean ibiltzea auto izugarri bat izatea bezala zen, gizon batek prestigio handiko negozioa zuela erakusten zuen”, zehaztu du idazleak. Emakumeek beren gizonen maitaleez harro hitz egiten zuten halakoetan. Baina bazeuden langile auzoetan oso modu gogorrean lanean aritzen ziren prostitutak ere.

Prostitutaren irudia mendeetan zehar aldatzen joan bada ere, eta bekatugile gisa ikustetik gaitz benereko izatera pasatu bazen ere, gaur egun, oraindik, tabua da putei buruz hitz egitea. Estigma baita mantentzen den ezau-
garri nagusia.

“Ez da 15 urterekin amesten zuten lanbidea, baina garbitzaile izatearekin ere ez dute amesten nerabeek, bizitzak eramaten zaitu horra”

Shandra Martinez, Aukera

Estigma nagusi

Estigma, hori omen da gaur egun prostituta batentzat gogorrean, gertuko jendeari esatea da zaila hasteko, eta ia ezinezkoa kaleko jendeari erantzutea. “Balizko kasu batean jarrita, oso erraza da ulertzen; lehen aldiz norbait ezagutzen duzu-

nean ohikoa izaten da lanbideari buruzko galdera, kasu horretan prostituta zarela esatea ia ezinezkoa da”, dio Shandra Martinez Aukera egitasmoko langileak. Prostitutak laguntzen dituen proiektua da Aukera. Kasu andana ikusi du Martinezek azken urteotan, eta nabarmendu du estigmak autoestimuan eragin izugarria duela. Bi identitate izan beharrak eragindako estresaren ondorioz gertatzen da askotan. Josebe Iturrioz Medeak talde feministako aktibistak ere ideia horrekin bat egiten du. “Putz hitza emakumeak iraintzeko erabiltzen da, oso estigmatizatuta dago hitza bera eta horrek eragin handia du”. Arauetatik at bizi den emakumea da prostituta, bere sexualitatea aske bizi duena. Emakume on eta txarraren arteko ezberdintasunekin amaitu beharra dagoela diote biek.

Aukera, Martinezek hitz hori nabarmentzen du. “Guk artatzen ditugun emakumeak adinez nagusiak dira eta beti libreki erabakitzen dute prostituzioan aritzea”. Testuinguruak eragina du, zalantzarik gabe, baina erabaki librea da gehienetan. “Nik askotan entzun dut etxe batean lanean aritu beharrean nahiago dutela prostituzioan aritu, hilabetean ateratzen duten kopurua etxe batean denbora luzean lortzen delako”, nabarmendu du Iturriozek. Ziurrenik, kasu gehienetan ez da 15 urterekin amesten zuten lanbidea, baina “garbitzaile izatearekin ere ez dute amesten nerabeek, bizitzak eramaten zaitu horra”, dio Martinezek. Josebe Iturriozek nabarmentzen du etxeko lanarekin alderatuta efektu berdinak sartzen direla

PROSTITUZIOA

C. ROQUEROK UTZIA



Prostituzioak Euskal Herrian izan duen ibilbidea aztertu du Charo Roquero, *Historia de la prostitución en Euskal Herria* liburuan. Bertan kontatu duenez, garai batean gorputzean ezta jarri, gerritik gora biluztu eta asto gainean herritik botatzen zituzten emakumeak, prostitutak izanez gero.

jokoan. Zaintzaren munduan sartzen delako lan hau, ezaugarri ezberdin batzuk izan arren.

Emakumea, atzerritarra eta gaztea

Txirotasunarekin lotzen da askotan prostitutaren irudia, beste hainbat lanbide bezala. Gaur egun 25 eta 50 urte arteko Hego Amerikako emakumea da prostitutaz Euskal Herrian dugun irudia. "Immigrantea, gaztea, oso ederra, paperik gabekoa eta gela batean ezkutuan lanean dabilena", hala definitzen du Medeakeko aktibistak. Askotan seme-alabak izaten dituzte jatorrizko herrialdeetan eta eurak dira familia osoa aurrera ateratzen dutenak, sarri aitarik ez dagoelako. Hala ere, krisiaren ondorioz, bertakoak diren emakume prostituta gehiago hurbildu dira azken aldian Aukera egitasmo-

ko langileengana. Ehuneko altuan emakumeak dira prostitutak, baina badaude sexu langileak diren gizonak ere, eta oso egoera kaskarra bizi dute.

Horrez gain, emakume transexualek prostituzioan duten lekua aldarrikatu beharrekoa iruditzen zaio Iturrioz. Beste edozein lanbidean duten diskriminazioa ez da ematen prostituzioan. "Gehien desiratzen dituztenak dira. Gaur egun arrakasta gehien dutenak". Hala ere, prostituzioan aritzen diren guztiak emakumeak ez badira ere, feminizatuta dauden pertsonak direla nabarmendu du. "Hainbeste desiratzen den zerbait ez dakit zergatik dagoen hain estigmatizatuta". Gaur egungo bezeroa ikusezina izan arren, gizon gehienak prostitutengana bizi osoan noizbait joan direla ziurtatu du aktibistak. Adin eta ideologia guztietako gizonak joaten dira. Asko koa-



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Shandra Martinez

Aukera programako langilea

«Gerturatzen zaizkigun emakume gehienak legeztatzearen alde daude»

Zein lan egiten duzue?

Arrats elkartearen barruan dago Aukera programa, 1998an hasi ginen lanean. Iaz, adibidez, ia 1.200 prostitutarekin egin genuen lan. Gipuzkoan aritzen gara. Bi era ditugu lanerako; batetik, Donostian eta Irunen ditugun lokaletan egiten dugu lan eta bertara gerturatzen dira emakumeak behar dutenerako, eta bestetik, gu gerturatzen gara euren lantokietara; pisu, klub edo kalera. Preserbatiboak eta labaingarriak ematen dizkiegu, baina baita aholkularitza ere. Behar duten horretan laguntzeko gaude.

Programaren helburu nagusia zein da?

Prostituzioan jarraitu nahi badute zaintzea, eta euren beharrei erantzutea. Gure programako helburu nagusia da erakustea eurak espazio bat dutela gizartean, eta badutela entzun eta ulertuko dieten leku bat. Prostituzioan aritzeagatik epaituko ez dituen leku bat izatea.

S. MARTINEZEK UTZIA



Zein beldur edo zein zalantza izaten dituzte nagusiki?

Pertsona bakoitzak bizkarrean daramatza bere kezka, oso ezberdinak izan daitezkeenak. Batzuek atzerriko legeaz galdetzen dute, beste batzuek profesionaltasunari buruz, nora jo analisiak egitera... Galdera asko egiten dizkigute. Hasieran normalean guregana preserbatiboa jasotzera etortzen dira, eta harremana sortzen joaten da gure artean, konfiantza garatzen.

Abolizioa, legeztatzea... Eztabaida mahai gainean dago.

Guk eztabaida horrekin denbora daramagu, eta jarra guztiak ulertzen ditugu. Baina horretan ez gara sartzen, guk eskubideak aldarrikatzen ditugu. Gure programak Aukera izena du eta ez da kasualitatea. Badakigu oso lanbide zaila dela eta estigma hor dagoela. Ondorioz, pertsona bat prostituziotik atera nahi duela esanez etortzen bazaigu, ulertu egiten dugu, baina baita jarraitu nahi duela esanez etortzen bada ere. Eskubideen alde eta ez epaitzearen alde gaude. Hori bai, gerturatzen zaizkigun emakume gehienak legeztatzearen alde daude. Beste kontu bat da legeztatzen bada nola egingo den. Baina zuhurtziaz egiten bada, eurak horren alde daude. Estigmaren beldur dira uneoro.

Nola lagundu diezaiekete herritarrek?

Gizarteak ulertu egin behar ditu. Pertsona hauek kriminal gisa ez ikusteko hezkuntza asko falta da oraindik, nire ustez. Gainerako pertsona guztiak bezala ikustea da garrantzitsua. Eurak ulertzea beharrezkoa da, eta ez epaitzea.



lartZALDIK

Lartzandieta Baserria

Urdaiaga Auzoa, 44 · 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

© 666 607 447 · inigohuegun@gmail.com · www.lartzaldiak.com

Koord. GPS: 43.266031,-2.067587

PROSTITUZIOA

J. ITURRIOZEK UTZIA



“Hainbeste desiratzten dena ez dakit zergatik dagoen hain estigmatizatuta”, dio Josebe Iturriozek (ezkerreko argazkian). Eskuineko irudian, Pablo Picasso margolariaren *Avinyó kaleko neskatxak*.

drilan, eta ohikoa izan da birjintasuna galtzeko putetxera joatea. “Lan antropologiko bat egiteko oso interesgarria da putetxe batera joatea; herriko medikua edo alkatea aurki ditzakezu bertan. Morboa ematen die ordaintzeak, eta ulertzen dut. Txortan egin, ordaindu eta kito, hor amaitzen da, ez dago loturarik”, dio Iturriozek. Putek tabu sexualak, gizonen sekretuak dakizkitela ere ziurtatzen du: “Pentsa momentu batean emakume guztiak batuko balira eta gizonei buruz hizketan hasiko balira zein konplizitate sortuko litzatekeen. Horregatik mantentzen dituzte urrun”.

Irunen kalean, baina isunekin

Ez da gauza bera klub edo pisu batean lana egin edo kalean aritzea. Pisuek eta klubek segurtasun handiagoa, babes handiagoa ematen dute bezeroarekin bakarrik geratzerako garaian, alboko gelan norbait dagoela badakitelako. “Askotan uste dugu bertan hobeto daudela, baina eurak nahiago izaten dute kalean libreki ibili. Inor ez da euren jabe, nahi duten ordutegian joaten dira eta eurak markatzen dute negoziatzia”, Iturriozek esanetan. Adibide bat jarri nahi izan du, “klub horretan harremanak kondoirik gabe izaten direla badio jabeak, hala egin behar dute prostitutek”. Putetxeetan jabea da arauak jartzen dituen, kalean, aldiz, ez. Putak kaletik atera nahi izan zituzten Erdi Arotik Modernizazioa igarotzean, eta horregatik estatuek putetxeak sortu zituztela dio aktibistak. Beti daude gauzak alde eta kontra; kalean libreago sentitu zaitezke, baina arriskua handiagoa izan daiteke.

Bi klub mota daudela azaldu digu Shandra Martinezek. “Batzuk txikiak dira, taberna edo pub txikien gisara funtzionatzen dute. Beste batzuk, aldiz, handiagoak dira eta plazaka egiten dute lan”. Emakumeek hara joan eta plaza bat erreserbatzen dute 21 egunerako, eguneroko tasa ordaintzen dute eta bezeroekin irabazitakoa eurentzako izaten da. Pisuetan ere egoera ezberdinak daude. Badaude pisuetara egunez soilik joaten direnak, baina baita bertan 24 orduz egoten direnak ere. Hori ere plazaka egiten dute lan, eta beraz, mugikortasun handia egoten da sektore honetan.

Euskal Herrian gehienbat pisu eta klubetan egiten dute lan. Hala ere, kaleko prostituzioa ere badago. Berezia da adibidez Irungo errealtatea. Prostituzioa Espainiako Estatuan alegala bada ere, Irunen udal ordenantza bat dago, eta isun administratiboak egon ohi dira. “Hori ez da okerrera, azken aldian penaletik prostituten aurka joaten direla jakitea larriagoa da. Oraingoan, prostituzioa ez da delitu bat, baina kriminal gisa tratatzen dituzte”, azaldu du Martinezek. Hainbat, gaur egun epaiketaren zain daude, agintariei desobeditzea egotzita.

Egoera zailak eta estigma hori dira errealtate gogorraren oinarri. Baina errealtate hori aldatzea eta prekarietate gordinetik salbu egotea ere herritarren esku dagoela uste dute bi langileek; baita heziketarekin eta mugimendu sozialekin urratsez urrats aldatu ahalko dela ere. Garrantzitsuena prostitutak ulertu, onartu eta estigma desagertzeko da. ■



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

«Bertsolaritza meza berria da»

“Ez dakit handitan zer izan nahi dudan”.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Baserrian hazitako gaztea zara.

14 urtera arte han izan nintzen, ia herritik atera gabe. Aitona-amonekin bizi ginen, animaliez inguraturik: txerriak, ahuntzak, oiloak, katuak... Gaur egun behiak daude oraindik. 14 urtetan irakasleak esan zien gurasoei batxilergoa egiten ahal nuela, eta nahiz eta ni Lanbide Heziketa eginda moldatzen ahal nintzen, amak dena antolatu zuen ni Iruñera ikastera bidaltzeko. Barneko ikasle bizi nintzen apaiztegiko ikastetxean. Hori ikaragarritzko aldaketa izan zen. Eremu “heidistiko” euskaldunetik Iruñeko Nafarroa osoko 50 mutileko egoitzara. Nahiko gogorra izan zen. Lagunarte lasaiera ohituta egonik, giza harremanetarako baliabide asko landu behar izan nituen denbora gutxian.

Bertso eskola zer izan zen zuretzat?

Giro berri eta arrotz horretan benetako oasia izan zen. Txikitatik hasia nintzen Beteluko bertso eskolan eta gero Iruñera etorrita jarraitu nuen hemen zebilen Manu Gomezekin. Iruñeko gune euskaldun ia bakarra izan zen niretzat orduan.

Bertsozalea txikitatik?

Bai. Auzokide bat, Matxindoko Ramon, oso zalea zen eta nik haria jarraitzen nion. 12 urte nituenean berak 50etik gora, eta grazia egiten zion ni berarekin aritzeak. Gure aitona ere bertsoak maite zituen. Gainera eskolan irakasle bat genuen oso bertsozalea. *Hitzetik hortzera* saioko atalak jartzen zizkigun eta bertsoak entzun, bertso zaharrak ezagutu, erriak egiten genituen... Pilotan normala nintzen, futboleak ez zidaten baloia pasatzen eta bertsoan ona nintzen, nolabait esateko. 14 urterekin Nafarroako Eskola Arteko Txapel-

keta irabazi nuen. Garai hartan Ekintza Landa, Nerea Bruño eta beste gazte batzuk atera ginen, gu baino helduxeagoak zirenekin batera: Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez... Eta zaharrak ere bazeuden, oraindik lehengo mundu klasikokoak. Oso nahasketa berezia.

Ilea morez tindaturik oholtzara igo den lehen bertsolaria izan zara?

Agian! Nire bizitzan fase desberdinak izan dira. Hasieran pena handia sentitzen nuen herritik atera behar izateagatik, mundu klasikoarekin puskatzeagatik. Bigarren fasea, aldiz, mundu horrekin deus jakin nahi ez izatea izan zen. Errebeldia garaia, ilea morez tindatu, rock musika eta gitarra jotzen hasi heavy talde batean... Garai hartan Lekunberriko gaztetxean egin genuen koadrila eta han oso identifikatuta sentitzen ginen. Berrira joan nintzen UBI egitera eta bi aldiz errepikatu ondoren Magisteritza egitea erabaki nuen, horrek aukera ematen zidalako Iruñean jarraitzeko bertsolari elkartean, kantuzaleekin lanean, musikarekin eta batu-

NORTASUN AGIRIA

Oskar Estanga Ezkurdia. Nafarroako Gaintza herrian jaioa 1978ko azaroaren 27an. Baserrian sortua eta hazia. Duela 20 urte bertsogintza berri zuten bertsolari gazteen labekadakoa. Eta horretan jarraitzen du. Urte gutxitan ikusi dugu gitarrarekin heavy gogorra egiten, musika elektronikoa *pintxatzen*, herriz herri kantu zaharrak abesten, bertso musikatuak egiten, batukada taldeak gidatzen han hemenka, haur eta gaztetxoekin lanean eta orain Contact Inprobisazio dantza egiten.



OSKAR ESTANGA

kadarekin. Jarraian musika elektronikoaren olatua etorri zen eta musika jartzen aritu nintzen denbora dezentez. Korrante kontrako mugimenduetan, *underground* giroan, ibiltzen nintzen asko: Iruñeko eta, batez ere, Lekunberriko gatzetxeetan. Ordu pila bilerak egiten, proiektuak pentsatzen, entseatzeten... eta beti entzuten genuena zen horrek ez zuela ezertarako balio. Baina gure instintua, gure sena, hortik zihoan. Eta asko ikasi genuen antolakuntzan eta helburuak zehazten, adibidez. Gerora asko balio izan diguten irakaspenak. Koadrila hori biltzen garenean beti amaitzen dugu urte horietaz solastatzen. Egia esan, urte haietan asko aldatu zen kaleko kultura.

Orain berriz adiskidetu zara baserriarekin?

Batez ere lanera joan behar dudanean. Bai, eta baserri giroko jendearekin ere bai. Urte askoan nire erabaki batzuekin ez dira bat etorri, adibidez apostasia egin nuenean, baina orain uste dut gazteak oso leku pribilegiatuan jarri gaituztela. Hori eskertu egin behar dut mila eta milioi bat aldiz. Eta guk, horren aurka borrokatu beharrean, prozesu hori osatu behar dugu, egoki ikusten dugun bezala. Orain arteko kezka nagusia izan da guk jatekoa izatea, hotzik ez pasatzea eta ikasketak izatea, eta hori dena gure aurrekoek lortu dute, izerdi patsetan ibilita. Lortu dute gu ongi bizitzea eta orain gure esku gelditzen da hori dena kudeatzea eta kulturalki ere erabakitzea nola kokatzen garen munduan. Erronka garrantzitsua dela ohartu naiz eta hamaika ertz ditu, gainera: ikusi behar da emozioei zer arreta ematen zaien, elikadurarekin zer egiten dugun... Baserri klasikoaren eredia oso lotua da. Gurea da aisialdia, denbora libre izan duen lehen belaunaldia, esate baterako. Orain artekoa mantentzeazaila da, gaur egun *gutxi egin eta asko atera* eredia nagusi bilakatu delako gure gizartean, baina mundu klasikotik badira oinarri batzuk oso garrantzitsuak

Bat-batean

Bat-batean ekimenean Jon Martin, Aimar Karrika, Migel Mari Elozegi, Etxahun Lekue eta Oskar Estanga biltzen dira. Bat-bateko bertsoak kantatzen dituzte alde zurretik aukeratutako munduko musikekin (samba, sona, tangoa...).

Errimatuz, garenera arrimatuz

Bertsoa eta hip-hopa uztartzen dituen ekimena da. Nerabeei zuzenduriko proiektu honek, oinarri musikal eta zuzeneko gitarra lagun, bat-bateko eta aurrez landutako hip-hop kantak ditu oinarri.

izan daitezkeenak etorkizunerako ere: herriarentzat lan amankomunak egitea, batzarrak, auzolana... Hori eredu handia da.

Zentzu horretan, Euskal Herrian lurrarekiko harreman gehiago dugu beste toki batzuetan baino?

Gertuago daukagu, behintzat. Hiri dosi altuak har ditzakegu eta gero hori osatu herri dosi batzuekin. Hori Euskal Herrian oso aberasgarria da gure barne oreka mantentzeko. Beste adibide bat izan daiteke zorionez ekoizle asko ekologikoaren aldeko apustua egiten ari direla, eta ez modagatik bakarrik. Horren azpian dago elikaduraren prozesua eta naturaren zikloak diren bezala bizi nahi izatea, norbera bere emozioekin eta inguruarekin konektatuz.

Gazte errebeldea izan zara. Nola ikusten duzu egungo gazteria?

Aldaketa asko izan dira eta egoera oso desberdinean bizi gara orain. Orduan helburu sozialak, ikasketa maila, egoera ekonomikoa... bestelakoak ziren. Orain gazteek beste jomuga batzuk dituzte. Oro har, dagoen eredu nagusia gorputzarena da, itxurarena, agian egoera ekonomikoa hobe delako, orokorrean. Onerako ere asko aldatu dira gauza batzuk. Egun, esate baterako, edozein gaztek kamera txiki batekin izugarri sormen lan polita egin dezake, baina indibidualismo handia dago. Ematen du arazo nagusia dela lan erosoa bat lortzea eta sinesten dugu hori iritsiko dela pixka batez itxoin eginez gero. Gure garaian gogoeta egiten genuen ea zer genuen gustuko eta hori garatzeko zer behar genuen. Espazio bat behar genuen entseatzeko, biltzeko, mozkorraldi batzuk lagunartean harrapatu eta barruan genuen errabia askatzeko... Ez ginen gehiengo, lau pitzatu besterik ez, baina hor ginen. Egun, aldiz, iruditzen zait erosotasun gehiago dagoenez pesimismoa ere handiagoa dela. Ez dakit



zein puntutaraino dagoen gogorik gauzak egiteko. Agian ez dugulako haien mundua ulertzen gara pesimistak, gure gurasoak gurekin pesimistak izan ziren bezala. Dena den, argi dago ez dauzkatela guk izan genituen baloreak. Konpromiso sozialari dagokionez optimismoa eta elkarlana galtzen ari dira. Eta modu berean gauzak egiteko interesa, diruagatik ez bada.

Ez zara inoiz geldirik egoten. Zertan zabiltza orain interesatua?

Musikan edo bertsolaritzan, adibidez, lan komunitarioak zer garrantzia duen ari naiz ikusten. Hasieran lan indibidualak direnak gero gizarteratu egiten dira eta hori nola gauzatzen den aztertzea interesatzen zait. Bertsolaritza, esate baterako, meza berria da. Jendea elkartu, sermoiak egin eta jendeak baieztatu edo ezeztatzen du txaloen bidez. Hori dena bere espiritualitatearekin, bere hutsalckeriekin, bere erritoekin... Urte gutxitan aldaketa asko gertatu dira gizarteratze horretan. Bertsolari bezala nire galderak dira nor naizen ni eta zer esan nahi dudana. Ez dut erronka erronkagatik nahi, baizik eta benetako elkarriketa sortzeko. Nire nahiak, nire zalantzak, nire ideiak azaldu, ez egi borobil edo formula magiko bilatu. Ikusi nola aritzen diren pertsonak pertsonekin, ez super-izarrekin. Asko hitz egiten dugu horretaz.

Bertso musikatuarekin ere oso apustu pertsonala egiten ari naiz eta esango nuke eremu klasikoetan aritu direnek ere ikusten dutela modu berezi bat badagoela hemen bertsoak egiteko. Nire kezka, alor guztietan, eredu osasuntsuak lantzea da. Esate baterako, parranda egiteko eta jendearekin harremanak egiteko orduan, auskalo nondik etorritako lotsa gaingitzea, edaten dugu, dirua gastatzen dugu eta osasunari kalte egiten diogu. Sanferminetako eredia da hori eta ez zait iruditzen harreman bat sortzeko modu

Zuek ere

Batukada eta euskal kantua nahastuz sorturiko disko berria da Zuek ere.

osasuntsua. Benetan inteligenteak eta landuak egongo bagina ez genuke txispatuta egon beharrik izango dantza egiteko edo elkarriketak edukitzeko. Hori konplexu batetik abiatzen da askotan. Praktika osasuntsuak aldarrikatzen ditut. Bertsolaritzan berdin: handiago sentitzeko besteak txikiago utzi behar dituzu. Behar ditugu espazioak denok elkarrekin kantatzeko, kantuak osatzeko, dantzatzeko, epaituak izan gabe. Kultur erreminta hauekin eremu osasuntsuak zabaldu behar ditugu.



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Eskola

“Umeekin ikusten dut oso mundu interesgarria dagoela, ez baitute hainbeste aurreiritzirik harremanak egiteko eta mugitzeko. Magia gertatzen da hor. Gaztetxoekin bertso udalekuetan ere oso pozik nago. Asko hitz egiten dugu: zer egin nahi dugun, zer gustatzen zaigun, nola sentitzen garen edo nola alda dezakegun gustuko ez duguna. Erreferentzia bezala hor gelditzen zaie betirako. Borondatezko jardueretan aritzen naiz eroso, baina ez eskolan, ikusten baitut han indar gehiegi joaten dela energia neutralizatzerara. Egungo eskola eredia gizartearena da, eta gizartea aldatzen ez den heinean, eskola ere ez da aldatuko. Emaitzari begira gaude beti, prozesua begiratu beharrean. Gero eta ondasun gehiago behar dugu gure autoestimua pizteko”.

Eta batukada?

Batukada edo perkusio ikastaroek erakutsi didate lehenbizi zeure buruarekin ongi egon behar duzula eta gero besteak entzun. Erritmoa badoa edo ez doa. Erritmoaren magia gertatzeko beharrezkoa da erlaxatzea, kontzentratzea eta elkar aditzea. Musika jartzen nuenean ere hori zen helburua: jendea, mugak puskatuz, gustura egotea. Sentipenak sortzen badituzu, gero haiek dinamika berriak sorraraziko dituzte.

Jendea parrandan dabilela horretara bideratzea zaila izanen zen, ezta?

Bai, polita baina gogorra. Horregatik orain une jakinetan baino ez dut egiten. Asko nekatu nintzen. Azken hiruzpalau urteotan asko lantzen ari naiz dantza eta mugimendua. Dantza integrala deitzen den formakuntza egiten ari naiz Zaragozan. Mugimendutik gizakiaren alderdi ezberdinak lantzea, gartzea, osatzea eta praktikara eramatea du helburu. Contact Improvisazioa deitzen den dantza egiten dut. Euskal Herrian elkarteak sortu dugu eta badira hainbat toki hau praktikatzen. Kontaktuaren bidez inprobisatzen den dantza da. Maiteminduta nago honekin. Larunbat goizetan talde bat biltzen gara Iruñean. Sexualitatearen tabu asko apurtzen dira horren bidez, adibidez.

Baina euskaldunak horretarako oso itxiak garelako diote...

Nik formakuntza ikastaroan askotan esaten dut nire baitarako, “zeinen zaila den hori guretzat!”. Beldur handiekin eta konplexuekin bizi gara. Denbora gutxian aldaketa handiak izan dira gure inguruan eta beldur gara. Gosea pasatuta, bat-batean opulentziara iritsitako gizartea gara. Ondasun materialak eta estatusa erakutsi bai, baina ez ditugu edonorekin kon-

partitzen. Buruaskiak izan nahi dugu, daukaguna kontserbatuz. Eta harremanen inguruan oso gutxi hausnartu dugunez, zuzenean psikologoei deitu diegu laguntza eske. Ene ustez gako bat da gizarte osasuntsua eraikitzea jardura kultural osasuntsuen bidez. Dena den, kontuan hartu behar dugu badela jendea egitura klasikoekin aski duena. Kosta egin zait ohartzea, baina orain argi ikusten dut: honek ez du zertan mundu guztiarentzat beharrezkoa edo baliogarria izan behar.

Eta hemendik aurrera, zer?

Oraindik ikasketa eta ikerketa garaian nago. Egun batean ekintza batzuk finkatu eta garatu nahi nituzke. Maila batean, beti sortzen egotea ongi dago, baina oinarri sendoa behar da hori garatu ahal izateko. Diziplinartekotasunak sare moduko bat sortzen du eta hortik artista integralaren kontzeptua. Harantz noala sentitzen dut. Zaila da bizitzaren pertsonalarekin eta diruaren behararekin uztartzea, baina gauza batzuk sendotu nahi ditudanez, erabaki dut aurreko sormen proiektu handitan ez sartzea.

Ezetz esaten ikasten ari zara?

Ikasi dut beldurrik gabe adierazten zer nahi dudana. Aitzakiarik gabe. Besteekin konplitu behar dut, baina neure buruarekin ere bai. Asko eman dut eta oraingo erronka da oreka bilatzea, egiten dudanarekin pozik egotea.

Zorionaren klabeak dira horiek?

Niretzat bai. Koherentzia du egiten dudana guztiak. Meditazioa bezalako tresnak ere erabiltzen ditut, gorputza lantzen dut, saiatzen naiz kirola egiten, mendira joaten, elikadura zaintzen. Edozein arlotan norbera ez badago ongi, ezin izango du ongi elkarrekin. ■



Ander Deuna Ikastola, autogestiotik kooperatibara

Aurki 50 urte beteko dituen Sopelako Ander Deuna Ikastolak badu zer irakatsia borondatezko elkarlanari dagokionean. 60ko hamarkadan herrian sortutako Alkartasuna kultura taldeak eta zenbait gurasok atera zuten aurrera ezerezetik; eta gaur egun oraindik, seme-alaben heziketaren zati bat ikastolak behar dituen lanak eginez ordaindu ditzakete gurasoek.

| LIDE HERNANDO |

GAUR EGUN 880 bat ikasle biltzen dituen Sopelako zentroak ikastola askoren sorrera berbera eduki zuen, 1968. urtean: elizpean hasi ziren eta, ikasle kopurua handitu ahala, zenbait lekualdaketa izan ditu, gaur egun arte. Ikastola askok, normalean, maileguak edota diru-laguntzak eskatu ohi zituzten aurrera ateratzeko. Ander Deunakoek, horrez

gain, autogestioaren bidea aukeratu zuten. “Hasieratik, ikastolaren sortzaileek argi zuten familien berdintasunean oinarritutako proiektua egin nahi zutela”, dio Xabier Ugaldek, ikastolako zuzendariak, “beraz, estatutuetan jada zehaztu zuten, haurren heziketaren zati bat ordaintzeko modua ikastolak behar zituen lanak gurasoek egitea izango zela”.

Bakoitzak bere esperientziatik zekiena eskaintzen zuen: haurren zaintza, garbiketa, eraikuntza... Gurasoen arteko elkarlan horren adibiderik garbiena, ikastolaren azkeneko egoitzaren eraikitze prozesua dugu: “70eko hamarkadaren amaieran erosi zuten orubea, baina bertan ez zegoen eraikuntzarik –kontatu du Ugaldek–. Gurasoek beraiek eraiki zuten egoitza osoa auzolanean, bai eraikina, baita kirolguneak, parkeak edota igerilekua ere”.

Kooperatiba integrala

Duela 15 urte, ikastolak aldaketa garrantzitsua izan zuen antolakuntzan: lanak egitea derrigorezkoa izatetik, aukerakoa izatera igaro zen. “Guraso ugariak jada ez zuten denborarik ikastolaren bizitzan horren inplikaturik egoteko, euren lanengatik batik bat. Horregatik hartu zen erabaki hori”, dio Ugaldek. Gaur egungo datuen arabera, gurasoen %35ek lanak egiten dituzte (matrikula ordaintzeaz gain), eta



Ander Deunan, jolas lekua margotzen. “Proiektu oro gero eta jende gehiagoren artean aurrera ateratzea aberasgarriagoa da beti. Gurasoek haurren heziketan zuzeneko eragina dutela sentitzea da onurarik handiena”, dio Xabier Ugalde zuzendariak.

%65ek dirua ordaintzen dute lan egitearen orde. “Egoera zaila da, baina partaide guztiek ikastolaren filosofia oso itsatsia dute, eta ez dut uste datu horiek behera egingo dutenik”.

Ander Deunak kooperatiba integral gisa funtzionatzen du: erabaki guztien %50a bertako langileen esku dago (irakasleak, administraziokoak...) eta beste %50a gurasoen esku. “Bi artezkaritza kontseilu nagusi daude, bata alde kooperatibistaz arduratzen da eta bestea alde pedagogikoaz, eta denetan daude gurasoak ordezkaturak –azaldu digu Ugaldek–. Bestalde, gela bakoitzak guraso bat du ordezkari, eta horiek gurasoen batzordea osatzen dute, batez ere aholkularitzan aritzen dena”. Gaur egun ikastolaz kanpoko lanek gero eta denbora gehiago hartzen dutela ikusita, oporraldiak edota asteburuak aprobetxatzen dituzte guraso askok, ikastolara etorri eta egin beharreko konponketak egiteko.

Ander Deunako zuzendariak onura handiak ikusten dizkio ikastolaren kudeaketan auzolanean aritzeari. “Batetik, ekonomikoa: bai gurasoek seme-alaben heziketa ordaintzeko, baita ikastolak berak behar dituen gastuak ordaintzeko ere. Bestetik, proiektu oro gero eta jende gehiagoren artean aurrera ateratzea aberasgarriagoa da beti. Baina batez ere, gurasoek haurren heziketan zuzeneko eragina dutela sentitzea da onurarik handiena”. 1993. urtean ikastolak 25 urte egin zituela eta ateratako liburuxkan, ez zuten kasualitatez Jesse Jackson aktibista estatubatuarren esaldia berreskuratu: “Zimendu lez gurasorik ez duen heziketa sistema hondorik gabeko upela da”. ■



NAFARROA OINEZ

Murala, sormena lantzeko proposamen kolektiboa

Zangozako Ikastolak antolatuko du aurtan Nafarroa Oinez festa, urriaren 19an. Hitzordu nagusiaren aurretik, hala ere, makina bat ekimen egin dituzte. Artea Oinez egitasmo artistikoa izan da garrantzitsuenetarikoa: sorkuntzaren bidez, ikastetxea eta norbere burua iraultzen ahalegindu dira eta ikastolako paretan bertan dagoen mural kolektiboa da emaitza.

| SAIOA ALKAIZA GUALLAR |

ARTEA IZAN DA ARDATZA, ikasleen eguneroko ogia Zangozako Ikastolan, 2013-2014 ikasturte osoan. Nafarroa Oinez egitear dira bertan, baina aspaldi ari dira lanean ikasleak eta irakasleak egunaren ertz guztiak leunduta gera daitezen. Eta hitzorduaren antolakuntza kudeatzeaz gain, bestelako gaiak ere jorratu dituzte, horren adibide Artea Oinez ekimena. Bi hantetan sostengatu dute asmoa: batetik, erakusketak ibiltaria muntatu dute, sortzaile ezagunek egindako lanak paratzeko (besteak beste, Nestor Basterretxearen eta Pedro Osesen obrak batu dituzte); bestetik, 36 metroko murala marraztu dute ikasleek jolastokian, era kolektiboan. Horiek izan dira bi ekimen nagusiak, ez bakarrik, ordea: adibidez, birziklatutako materiala erabili dute eta Power Point-ak egin dituzte. Nafarroa Oinez jai egun bat baino askoz gehiago ere badelako; azken finean, errealitatea zeharka egunero-egunero ukitzen duen gaia da, txanda duen ikastolarentzat. Eta Zangozako Plastika irakasleek jakin dute festaren izaera euren ikasgaian txertatzen.

Graffitiaren erditzea

Margoketa handi bat burutu behar zutela otu zitzaion Axun Urkia Lehen Hezkuntzako irakasleari. Hark gidatu du proiektua. Aurreneko pausoa tokia aurkitzea izan zen, baina pare-parean tokatu zitzaaien leku egokia: jolastokia. 36 metroko pareta daukate bertan, eta Urkiak umeei artearekin jolasteko era ezin hobea zela pentsatu zuen. Handik aurrerakoa erraz etorri zen. “Ikastolako sotoan zirriborroak egiten egon ginen aurrena, behin zehaztuta, kalean egin genuen”.

Horrela esanda sinplea badirudi ere, luzea izan da sorkuntza prozesua: “Lehenengo hiru hilabeteetako lan handiena gaia finkatzea izan zen. Azkenean, zehaztu genuen: historia. Behin hori ezarrita, askoz errazagoa izan



zen”. Hala, Txanela liburuak gidatuta, pareta margotu eta marrazteari ekin zioten 6 eta 12 urte arteko haurrek. Oso asmo polita izan da, Urkiaren irudiko. Are gehiago, oso harrera ona izan duela nabarmendu du. “Pentsa, guk, berez, Plastikari ordubete ematen diogu asteaz, baina asteburutan ere etorri dira ikasleak”, adierazi du kontent. Hala, hondo urdineko graffiti koloretsu bihurtu da orain dela ikasturte bat pareta gris bat baino ez zena.

Urkiaren ikasleak ez dira bakarrik egon apaintetan; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteen laguntza izan dute. Idoia Legarretaren ikasleak izan dira muralarekin ausartu direnak. Hasieran, ez zegoen pentsatua haiek hartzea parte, baina azkenean, Urkiare-



Irudiotan, Artea Oinez egunean, margotzen eta material ezberdinekin sormena lantzen. Lelo bat izan dute Zangozako Ikastolan oinarri: Artea eta pentsamendu kritikoa.

kin batera hasi zen elkarlanean Legarreta, eta biei ideia bikaina iruditu zitzairen. Hala, muralaren azkenengo zatiaz arduratu dira 13-16 urte arteko gazteak. “Oso positibotzat” jo du Legarretak elkarlana, eta egungo artegintzan gutxi ematen dela salatu du: “Normalean, koadro bat egiterakoan, autoreak oso indibidualistak dira, nahiz eta badauden esperientziak eta pintore ezagunak ere ari dira esperientzia kolektiboak izaten. Halaxe eraman dugu guk ere aurrera murala, denok batera”. Onartu du jende askorekin aritzea zaila dela, baina aldi berean “oso aberasgarria”.

Adinak mugatzen du sorkuntza

Muralak bide luzea izan du, gazteenek pentsatu eta ikastolako zaharrenek azken zatia margotu duten arte. Bi irakasleen aburuz, deigarria da adin tarte bakoitzean nola bizi

izan duten sorkuntza. Legorretak azaldu digu: “Txikitan era intuitiboan egiten dira gauzak, handitzen zarenean teknika gehiago behar duzu. Heltzen da momentu bat non jakin behar duzun zergatik diren gauzak horrela: koloreen teoriak, konposizioa, artistak eta euren bizitzak... Hutsetik hutsa ateratzen da, bestela”. Horregatik, uste du umetan gehiago sortzen dela, hainbesteko mugarik sentitzen ez delako, eta aldi berean, teknikak ez kontrolatzea ez delako traba. Bat egiten du Urkiak lankidearen ustearekin: “Txikiek ez dute inongo beldurrik, ez dute mugarik! Gogo handiz daude, eta are gehiago emozioztatzen dira emaitza ikusten hasten direnean”. Gaztaroan daudenen kasuan, aldiz, lotsa handiagoa da, eta gehiago kostatzen zaie.

Gaztetan, prozesua bera konplexuagoa dela argitu du Legarretak, eta horri atxiki dio




Kalitatea da gure produktuen ezaugarri nagusia!

BISITA EZAZU GURE DENDA

Industrialdea B 7-8 partzela

ABLITAS · Nafarroa KOSTAPREZIOAN



conservasartesan
maríajesús



www.conservasartesan.com



batzuetan sortutako artearekiko blokeoa. “Ez da bakarrik egitea, baizik eta... nola egiten da? Emaizta bezain inportantea da prozesua. Nola; zein baliabide dauzkagun, zein erreminta...”. Gazteak gauza horiez guztiez jabetzen dira, eta horren ondorioz limite gehiago izan ohi dituzte.

Lelo bat izan dute Zangozan oinarri: *Artea eta pentsamendu kritikoa*. Horixe da urte osoan gogoan izan duten esaldia. Legorretari berari ere oso garrantzitsua iruditzen zaion kontzeptua da, eta holaxe saiatu da gazteei transmititzen. “Hutsa daukagu gauza askotan, baloreetan, hainbeste gauze-tan, hutsa... eta hutsa jakinduri-az bete behar dugu, baina modu kritikoan lortutako jakintzaz”. Hori da, hain zuzen, DBHko ikasleei helarazi nahi izan zaiena. Sortzeko, aurretik egindakoa ezagutu behar da, eta garai bateko sortzaileek nola lan egin duten jakinda, guztiz zilegi da bide berriak hartzea. “Hau horrela da edo aldatu dezakegu?” galdera nahi du sartu Legarretak nerabeen buruan.

Artea hezkuntzan, ahantzitako arloa

Muralaz gain, denetariko ekintzak egin dituzte ikastetxean irakasleek. Adibidez, Legarretak

36 metroko murla marraztu dute ikasleek jolastokian, era kolektiboan. Historia du gai nagusi graffitiak.

“Sortzeko orduan, txikiek ez dute inongo beldurrik, ez dute mugarik! Gogo handiz daude, eta are gehiago emozionatzen dira emaitza ikusten hasten direnean”

Axun Urkia, Plastikako irakaslea

tak birziklatutako materialarekin lan egitera bultzatu ditu hainbat ikasle, eta baita ordena-gailuz egindako diseinuak sortzera ere. Bestalde, biak saiatu dira Artea Oinez erakusketa ibiltarian parte hartu duten artisten historia klasean lantzen. Poliedrikoa baita Artea Oinez ekimena.

Eta jorratutakoarekin oso kontent badaude ere, kexu dira biak, orokorrean arteari hezkuntzan ematen zaion leku urria dela-eta. Urkiak argi dauka Hezkuntza Planean bertan dela Plastika gutxietsia: “Trakasleonek aldetik jartzen dugu halako ukitu bat, baina ikusten

duzu sisteman zein garrantzi eskasa duen. Egun, gero eta toki txikiagoa ematen zaio plastika arloari. Gaizki baloratua dago heziketan”. Eta bide beretik jo du Legarretak: “Artea bigarren mailako ikasgaitzat hartu dute. Eta erreforma berriekin, musika, artea... bigarren mailako ikasgaitzat ikusten dituzte, eta ez luke inondik inora horrela izan behar!”.

Oztopoak oztopo, lanean dihardute, sortuntzak ikastolako gelak zipriztin- du ditzan. Murala bukatzearekin batera, arteari lotutako ikasketa prozesua hasi baino ez baitute egin. ■



argiaren lagunak

Baduzu norekin joan

AUTOBUSAK
Aizpurua

943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es
info@autocares-aizpurua.es

argia eguna

ZENBAKI SARITUA

0525

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

SARIA

Bi lagunentzako
gau bateko egonaldia
eta bertako produktuekin
egindako afari goxoa
Usurbilgo **Atxega Jauregian**

Saria jasotzeko:
943 37 15 45
(hilabeteko epea)

Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Inperialismo gordina

AEBek “operazio militarrek” egin dituzte munduan 214 urtetan; 21 urtetan baino ez dira etxean gelditu. Bigarren Mundu Gerraren ostean, beren indar armatuek herrialde piloia eraso dute. Ez dira gutxi ere bultzatu eta babestu dituzten estatu kolpeak. Munduko potentzia nagusiak zuzenean edo zeharka hil dituen pertsonak milioika dira.

Historia lazgarri horren amaiera Obamarekin etor zitekeela pentsatu zuten batzuek. Haatik, horiek ez ziren Obamarengan “esperantza” jarrita zuten bakarrak. AEBetako industria militarren eta interes geostrategiko-inperialen “zaintzaile” bilakatu diren *neocon* batzuen usteetan, Inperioaren proiektu espansionistarekin aurrera jarraitzeko Obamaren irudia Bushena baino eraginkorragoa izan zitekeen. Aldez aurretik, Bushen administrazioan lan egin zuten kanpo politikako aholkulari eta karguak Obamaren administrazioan daude.

Ez da erraza Mendebaldean kritikatzeko, honek hedabideen eta propagandaren kontrol handia baitu: alemaniar kazetari batek argitaratu berri duen liburuan esplikatzen duenez, AEBetako inteligentzia zerbitzuek kazetari alemaniarrek erosten dituzte

Afganistaneko eta Irakeko gerra eta okupazio militarrek sortu zuten irudi-kalte konpontzeko Clintonen garaian erabilitako estrategietara bueltatu behar zen, hau da, zuzeneko esku-hartze militarra baino, herrialdeetako erregimen aldaketa bultzatzeko estigmatizazio propaganda kanpainak indartu, ezegonkortasuna subentzionatu eta, behar izanez gero, oposizioko talde armatuak babestu eta armatu. Metodologia horren azken fasea herrialdeen bonbardaketa izan ohi da. Hain zuzen ere, 1999an Jugoslavian egin zuten bezala NBERen inolako mandaturik gabe.

Estrategia horren jokoa arriskutsua da: “Askotan nire etsaien —eta lagunentzako— etsaiak subentzionatu eta armatu egiten

ditut, beste batzuetan armatu ditudan horiek nire beste etsai batzuekin aliantzak egin ditzakete; babestu eta armatu ditudan horiek goizetik gauera nire etsaiak bilaka daitezkeela baztertu gabe”. Esaterako, eta besteak beste, galde diezaietela Saddam Husseini edo Osama bin Ladeni.

Berriki, John McCainek telebista saio batean azaldu du AEBetako zerbitzu sekretuek Obamari eskatu ziotela ISIS (Estatu islamikoa) eta Siriako matxinatuak armatzeko, baina orain Siriako gudaren itzalpean hazitako ISIS omen da munduko arriskurik handiena. Aitzakia ederra bilatu dute Sirian bonbardaketak egiteko, bertako gobernuaren eta NBERen inolako baimenik gabe.

Obamak sei urte baino gutxiago behar izan ditu zazpi herrialde independente bonbardatzeko eta hiruzpalau estatu kolpe bultzatu eta babesteko. Ez da marka txarra, baina mugimendu eta alderdi politiko “bakezale” eta “antiinperialista” gehienek nekez kritikatu dituzte gertakariok. Errusiak egin —eta egin ez dituen— ekintzak gogorri kritikatzeko dira —moral bikoitz eskandalagarria erabiliz—, ordea, berdinak edo antzekoak Mendebaldeak egiten dituen txalotu, ezkatatu edo era askoz ere epelagoan kritikatzeko dira.

Ez da erraza Mendebaldean kritikatzeko, honek hedabideen eta propagandaren kontrol handia baitu: alemaniar kazetari batek argitaratu berri duen liburuan esplikatzen duenez, AEBetako inteligentzia zerbitzuek kazetari alemaniarrek erosten dituzte. Aldiz, Inperioaren arerioak diren bigarren edo hirugarren mailako potentziak kritikatzeko ez da zaila. Adibidez, Errusia kritikatzeko kasu askotan onuragarria izan daiteke kritikatzeko duenarentzat, izan ere, Inperioaren etsaiak kritikatzeko baduzu, akaso etxean dituzun antiinperialista “astun” batzuen kritikak jasoko dituzu, baina zure begirada munduan badago, badakizu Errusia kritikatzeko sarituta dagoela. Nazioarteko politikan Mendebaldeko Inperioaren ISO (Estandarizazio Nazioarteko Erakundea) azterketa pasatzea bezala da, konbalidatu eta “normaldu” egiten zaitu. ■





Koldo Aldalur

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Sokatira

GUTAKO bakoitzaren barruan editore bat dabil seguru-
ruenik, beraz, azken asteotako gertakarien harira, ari-
ketatxo bat proposatu nahi dizuet. Abuztuaren 28tik
31ra Munduko Sokatira Txapelketa jokatu zen AEBE-
tako Wisconsinen. Azken txapelketatan ez bezala Eus-
kal Herriko selekzioak parte hartzeko aukera izan zuen
Basque Country izenpean. Pauso historikoa, diote.

Zer aldatu den? Ba, TWIFek, 17 bototik
13 aldeko zirela, onartu berri duela bera
bezalako Nazioarteko Kirol Federazioak,
erakunde pribatuak izanik, ez direla nazio-
arteko eskubide publikoaren arauetara
mugatzen, eta ondorioz, naziorik gabeko
estatuek berez badutela berme juridikorik
ordezkaritza izateko, hainbat baldintza
betez gero: ditxosozko Auzitegi Konstitu-
zionalaren arabera txapelketa ez-ofizialetan
bakarrik parte hartu ahal izatea eta estatu
mailako federaziorik ez izatea, besteak beste.

Beraz, zirrikitutxoa zabaldu da gure hainbat selek-
zioak —arrazoi horren pean— 50. naziorik gabeko esta-
tua ordezkari dezaten, logikotzat jo behar baita lehen
pauso horren atzetik beste batzuk etorriko direla,
haize berriok itxita egon den parte-hartzearen atea
erabat zabal dezaten. Gainera, hain modan dauden
“interpretazio juridikoak” agertuko balira, arazoa
TASera aurkezteko biderik badago, Europako lege-
diak dioena aztertu, eta hala behar izanez gero, eraba-
ki okerrak zuzendu ahal izateko.

*Esanguratsua,
atzera eginez
irabazten den
kirol bakarrean
horrelako
aurrerapausoak
lortzea*

Esanguratsua ematen du, ezta? Atzera eginez ira-
bazten den kirol bakarrean horrelako aurrerapausoak
lortzea. Euskal tiratzaileek paparrean ekarri dituzten
dominak ez zaizkit gehiegi axola, lortu dutena sari
guztien gainetik dagoelako.

Eta hona hemen lehen aipatutako jokotxoa: zuk non
kokatuko zenuke albiste hau komunikabideren batean
albisteak garrantziaren arabera ordenan
jartzeko ardura bazenu? Kiroletako blo-
kean edo politikakoan? Edozeinetan izan-
da ere, hasiera xamarrean kokatuko zenu-
ke albisteak garai berrian sartzen ari garela
azaltzen duelako, edo munduko albiste
triste guztiak amaitzen ari direla ematen
duen azken bagoian kokatuko zenuke
Parisko modaren azken berriekin batera?
Hizki handiz jarriko zenuke, alboko
komentarioa eta guzti, lehentasuna ema-
nez, edo izkina batean lotsaturik bezala? Albiste garran-
tzitsuenetan bezala kazetariren bat propio bertara bida-
lita, edo besterik ezean, artxibora jota argazkiren batek
bederen albisteak itxuratu dezan?

Galdera askotxo eta erantzun bakarra: gure eskueta-
ra, belarrietara eta begietara iristen zaizkigun komuni-
kabide gehienek arduradunen buruetan
nazio kontzientzia krisi gordinean dago.

Jo ezazue hemerrotekara, artxibora edo
egokien iruditzen zaizuen webgunera eta
ikusiko duzue non gauden. ■



DANI BLANCO



**Kattalin
Miner**



KAZETARIA

“Ez dut inoiz ezer irabazi”

ALDIZKARI honetako webgunean ikusi
ahal izan nuen Cat Boyd Radical Indepen-
denceko kideari egindako elkarrizketa bat.
Eskoziako galdeketaren bezperetan espe-
rantza izpi bat nabari zitzaion, denbora
luzez lan ikusezin handia egin duen hark
garaipen bat behar duen bezala; “ez dut
inoiz ezer irabazi (...) irabazteko ideia, zer
bait irabazi dezakegun ideia hutsa, hain da
arraroa niretzat...”, zioen.

Esaldi horrek markatu egin ninduen
nolabait. Izan ere, ni neu faktikoki ezer
gutxi irabazi duen sententzia duen belau-
naldikoa naiz. Ezkertiar, feminista, aber-
tzale eta abarrantzat, garaipenak ez dira

sarri heltzen, eta heldutakoan ez ditugu
maiz garaipen bezala bizi ohi. Batzuek,
eskubide hutsak izanagatik dagozkigunak
direla sinesten ditugulako, beste batzuek,
lortutako hori nahikoa ez dela uste dugu-
lako.

Aurreko astean, abortuaren legea atze-
ra botatzea, eta hura aurrera eraman nahi
zuen ministroak dimisioa aurkezteko lortu
genuen. Lortu genuen. “Ez dut ezer inoiz
irabazi”, eta irabazitakoan, ira-
baztearen ideia hutsa arrotza
egin zitzaidan; zait. Baina tira,
irabazten ere ikasi behar omen
da. ■



**Imanol Alvarez**

♦ IRAKASLEA

Tradizioak eta animaliak

MUNDUAN BARNA tradizio anitz daude modu batean edo bestean animaliak ardatz dituztenak: zezenak, idiak, astoak, antzarak, bigantxak, zekorrak, oilarrak, txakurrak... Euskal Herria ez da salbuespen. Gehienetan sufriarazten zaie animaliei. Mendebaldeko egungo gizartea oso sentsibilizatuta dago animalien kontrako tratu txarrekin. Gauzak horrela, ulertzeko modukoa da bi errealitate horiek gero eta maizago eta bortitzago talka egitea. Tradiziozaleak itsu-itsuan aritzen dira tradizioak defendatzen tradizio direlako, normalean bestelako arrazonamendurik gabe. Tradizio izatea nahikoa al da bidegabekeria iraunarazteko? Erantzuna, ene ustez, argia da: ez! Sare sozialetan izaten da agerian eztabaida. Hedabideetan ere izaten du isla eztabaidak tarteka-marteka, batez ere animalisten protestaldi ikusgarriren bat dagoenean edota tradiziozaleen eta animalisten arteko liskarren bat.

Beharbada, zezenketak dira arazo horren paradigma. Batetik, nazio bat (espainola) ulertzeko modu bat ei delako, eta bestetik diru asko mugitzen delako horretan. Azken asteotan zezenak berriz izan ditugu hizpide; ez zezenketak. Toro de la Vega delakoaz ari naiz. Valladolideko Tordesillas herrian burutzen da zezenaren ehiza antzeko basati hori. Inoizko handiena izan da aurten usadio horren aurkakotasuna: manifestazio handia Madrilen, ospetsu asko (kantariak, aktoreak...) kontra agertu dira. Tordesillasen bertan ere protestaldia izan da, non protestagileak tradiziozaleek harrikatuak izan diren.

Legeak argiak dira: estatukoak, autonomikoak eta hainbat hiri eta herritakoak. Baina interpretatzean sortzen da gatazka. Interpretazioak interpretazio, animaliak torturatu eta hiltzen dira batzuen dibertsiorako. Kontraesan galantak ere badaude. Frantziak zezenketak ondare kultural izendatu ditu orain ez asko, bertan tradizioa ote den zalantza ere bada goen arren. Katalunian (eta Kanarietan) zezenketak debekatu dira. *Correbeaus* direlakoak, ordea, legezkoak dira. Gurean, zezenketen aurkako sentikortasun handia bai, baina inor gutxik planteatu du, adibidez, idi-demak ere ez ote diren tratu txarra. Agian berriki hildako bi idien kasuak pentsaraziko digu. Lekeition gomazko antzarrak erabiltzen ditu hainbatek, baina Bilbon urte askoren ondoren bigantxak itzuli dira. Badira beste kasu ugari hausnar gai: txakur lehiaketak, zaldi eta txakurren lasterketak, zirkoak. Afera honek oraindik zainak luzeak ditu gero! ■

**Mikel Garcia Idiakez**

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Euskal LOMCEk laburra du bidea

EUSKARA eta Eskola Kontseiluak LOMCE legearen inposizioetatik “aske” geratuko dira EAEn, Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin sinatutako akordioari esker. Baina zertan datza adosturikoa eta zenbaterainoko garrantzia dauka? Batetik, ikastetxeetako euskara –eta gaztelania– ordu kopuruak eta hizkuntzen tratamendua erabakitzeke garaian, Espainiak ez du eskurik sartuko, eta pozgarria da hori. Dena den, zer pentsatua eman beharko liguke: murgiltze ereduak daukaten lurraldeak kaltetuko ditu LOMCEk (Katalunia, adibidez), baina EAEn euskaren eta gaztelaniaren proportzionaltasuna betetzen dela iritzi dio. Hots, hiru hizkuntza ereduak eskemak bermatzen duela ikasleek gaztelania menperatzea. Euskalduntzea, ordea, ez du bermatzen, eta horregatik hiru ereduak eskema gainditu eta murgiltze eredurantz egin behar dela aldarrikatzen du hezkuntza komunitateak.

LOMCEk, bestalde, ikastetxeko zuzendaritzari ematen dio eskolaren kudeaketan botere handiena (jakina, zuzendariaren hautaketan zeresan handia izango du Madrilek), eta izaera kontsultibora zokoratzen du Eskola Kontseilua (guraso, irakasle, ikasle eta beste hainbat eragile biltzen dituen organoa). Akordioari esker, Jaurlaritzak kudeatuko ditu zuzendaritzaren eta kontseiluen arteko harremanak, eta kontseiluek egun duten erabakimen ahalmena bermatuko duela ziurtatu du Jaurlaritzak. Ahots kritikoei diote Eskola Kontseiluak agortutako ereduak direla, parte-hartze demokratikorako bide berriak jorratu behar direla (ikasleak, esaterako, ez daudelako nahikoa ordezkaturik), baina hala ere, baikorra da Kontseiluak erabakietan eragin ahal izatea eta dena zuzendariaren esku ez egotea. Zailena zera da, Kontseilua legez kontsultibo izaten jarraituko duela jakinik, praktikan nola lortuko du Jaurlaritzak Kontseiluen iritzia aintzat hartzea zuzendaritzak?

Ezer ez baino hobea da akordioa, duda barik, baina ez gaitezen engaina, kondarrak dira, EAerako “Euskal LOMCE” xamurragoa lortzeko negoziaketek laburra baitute bidea: hezkuntza sistemaren zimendu pedagogiko, ideologiko eta curricularrek Espainiaren menpe jarraituko dute, baita horretarako kontrol mekanismoek ere –azterketa eta ebaluazioek–. Negozietak negoziaketa, hori ez du aldatuko Madrilek, ez behintzat PPK gehiengo absolutua duen bitartean. Beraz, herritarrok ezin diogu utzi erne egoteari eta bestelako alternatibak planteatzeari. ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Giz*ntasuna

BADUT LAGUN BAT argaltasunarekin tematuta dagoena, berearekin eta nirearekin. Medikuak pilula batzuk agindu dizkio eta, argaltzeko ez badira ere, jateko gogoa kentzen omen diote. Anitzetan bere piluletatik eskaini dit, argaldu nahian serio jarritz. Oraingoz, etorkizuna etorkizun, ezezkua eman diot beti. Bitxia da lagunarena, zer pentsa eman dit frankotan, berari, paradoxikoki edo, gizenak gustatzen zaizkiolako oherako, batzue-tan gizentasun larrikoak. Balirudike ez duela nirekin tentaziorik eduki nahi, baina horren atzean botere erlazio mota bat susmatzen dut.

* * *

JUANJO OLASAGARREK liburu batez hitz egin dit, non gizentasuna botereari kontra egiteko tresna bezala azaltzen baita. Finkatutako edertasun ereduaren kontra jotzen dute gizenek. Gizenak sexy agertzea probokaziotzat hartzen du gizarteak, ia erasotzat (*Queer* mugimenduetatik dator gero hurrengo urratsa. Gizontasuna bandera bihurtzea, alegia: gayetan *bear*, eta lesbianetan *butch*). Gizenek osasuntsua izateko betebeharrak sozialaren aurka jotzen dute. Gizenek eritasun gehiago izaten dute, gehiago kostatzen zaizkio estatuari, ez dira hain produktiboak. “Ez da estetikagatik, osasunagatik baizik” bezalakoak gero eta sarriago entzuten dira argaltzeko aitzakian. Gizenek ematen duten nazka gizarte klasearen beldurra noraino eraginda dagoen komeniko litzaiguke galdetzea.

* * *

LEHEN aipatu lagunak gizentasunarekin duen tema nik rol sexualarekin lotzen dut. Lehen esan bezala, gizenak gustatzen zaizkio, baina bere burua definitu beharko balu berak aktiboa dela aldarrikatuko luke. Askotan esan du. Esplicituki esan baino, pasiboez egiten dituen txistetxoetatik ondorioztatu ahal da. Modu hedakorrean da, izan ere, aktiboa. Gizonik heteronormatiboena izan daitekeen moduan. Eta pasiboekin

eratzen duen erlazioa, menperatzailea, gizonik heteronormatiboena emakumeekin daukanaren parekoa kausitzen dut nik. Heteronormatibotasunaren eske-ma binarioa eta inpositibo bera berritzen du, non “beste” bat behar dugun eraiki: ahulagoa eta menpekoa. Sexu edo genero rolen banaketa finkatu nahi izatean hala egiten dugu.

* * *

POBREAK gizenak dira. Telebistan gizon bat agertu da, negarrez ia, etxerik ez, lanik ez, jatekorik ez dituela esanez; kalean eta eskean ibili behar duela. Telebistaz alde honetara, iruzkinak ankerrak eta, txarragoa dena, okerrak dira: “Ba ez du ematen tipoak gose handirik pasa duenik”. Gizona da oso “emakumea”. Gizentasuna pobrea izateko gure gizartearen modua da. Jatetxe eredu guztiak hiperkalorikoak dira eta kapitalistenak eskaintzen du jateko merkeen.

Argaltzea eskala sozialean gora egiteko bitartekotzat (edo ordezkotzat) saltzen digute.

* * *


NIRE lagunak ez du irrika duena izan nahi. Eta desiratzen duen hura mespretxatzen du. Atzelaria ez du izan nahi, baina atzetik eman nahi du. Ez du gizen izan nahi, baina gizenengan finkatzen ditu begiak. Autogorrito mota gutxi gorabehera sofistikatu dela ulertu arte burua hautsi dut jarrera hori ulertu nahian.

* * *

ARTIKULU honen zirriborroa garbira pasatzean lagunaren izena desagerrarazi dut eta nor den identifikatzailea eraman litzaketan aztarnak garbitu ditut. Zenbaitetan zalantzan gelditu naiz,

neure letrari ezin atze-
manda, “gizen” ala

“gizon” idatzi ote dudán. Irakurle-
ari bakarmena eskatzen diot
noiz edo noiz trukatu baditut. ■




Antton Olariaga

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

«Ez da gauza bera ‘espetxeak euren jabeentzat’ edo ‘espetxeak apurtu’ oihukatzea»

Gazte mugimenduko jardunagatik birritan izan dute espetxean Markel Ormazabal (Donostia, 1982). Soziologia ikasketak burutu eta bere lehen liburua osatu du barrote artean: *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* (Txalaparta, 2014). Kartzela kronikatik harago doa liburua, eta liburuaz harago hitz egin digu, idazketaz eta bereziki espetxeaz.

| ITZIAR UGARTE |

Noiz iritsi zinen kartzelara?

Bi garaitan izan naiz. Lehenik 2002an, kale borrokaren aurkako polizi sarekada batean atxilotu ninduten. Hiru egunez inkomunikatu eta torturak sufritu ostean, Alcalá Mecoko gazte moduluan izan ninduten hilabetez. Bigarren espetxealdia 2007tik 2013ko urtarri-lera izan zen, Jarrai-Haika-Segiren sumarioan auzipetuta. Aurretik, aita ere preso eduki zuten, 18/98 auzia zela-eta.

Gure historian kartzela horren presente izanik ere, hartaz deus ez dakigula azpimarratu duzu.

Liburuaren aurkezpenean bota nuen anekdota: kartzelan sartu eta urtebetera, auzoan preso-oen eskubideen aldeko saltsa guztietan eza-guna dugun emakume bat agertu zen gurasoenean, janariz betetako bi poltsa eskuetan, semeari eramateko zirela esanez. Kartzelaren inguruko galetan aditutzat nuen, baina emakumea ez zen ohartzen Herrera de la Manchako garaietatik, duela ia 30 urte, debekatuta dagoela janaria sartzeari kanpotik.

Preso egon direnen aipamenak eta erreferentziak baliatu dituzu. Nolakoak dira bilketa lana eta sormen prozesua ziegatik?

Kartzelak inbutuaren antza duela esaten zuen lagun preso batek. Patioan janariaz hitz egiten genuen maiz; kartzelara iritsi eta lehen egunetan sekulako txuleta edo bakailaoa jateko gogo duzu, baina denborarekin inbutuaren irteera mehetzen doa eta azkenean, bi arrautza frijitu duinekin konformatzen zara. Sormenarekin ere berdin: kartzelara iristean sekulako burutazioak nituen, komiki liburua,

bertso liburua, poesia... Baina bitartean kartzelari buruzko testuak biltzen joan nintzen eta urteak igarota, informazio pila nuela eta zer egin ez nekiela konturatu nintzen. Horregatik, liburua collagea da kronika baino gehiago. Erreferentzia ugari dago, baina ez daude guztiak. Miaketak, ziega aldaketak direla eta, paper piloa galdu nuen.

Irutxuloko Hitzan ere kolaboratzen zenuen. Idazteak ihes egiten laguntzen du?

Kartzela barruan nor bere diziplinak bilatu ditzake, ikasketak, kirola, idazketa... baina idazten duen presoak bere denbora kartzelakoari ezarri eta denbora hori praktikatzat ihes egiteko egiten du.

Irutxuloko Hitzan aurretik kolaboratzen nuen. Barrutik idazten jarraitzeak Donostiari buruzko informazioa irensten jarraitzeko aukera eman zidan. Ikaragarri eskertzen diet.

Idatz liteke kartzelaz inoiz barruan izan barik?

Ziurrenik ez. Kartzelaz idatzi diren testu onenak preso egon direnek idatzi dituzte, bai sormenezkoak, baita akademikoagoak ere. Pedro Oliver irakaslea datorkit gogora. Bere garaian intsumiso izateagatik Iruñeko kartzelan egona, gaur egun ziurrenik Espainiako Estatuan kartzelaren inguruan ikerketa gehien osatu duen irakaslea da.

Presondegiaren zigor sistemak gizarteari zer dakarkion mamitzen du liburuak.

Bai. Espetxea aberrazio soziala da, alfonbraren funtzioa betetzen du: gizarteko zikinke-riak azpian gorde eta ikusten ez ditugun



bitartean, zoriontsu gara. Horregatik, espetxeari buruzko hausnarketa kolektibo sakona egin behar dugu. Kartzela bai ala ez eztabaida mahai gainean ezagutu dut beti. Baina ez da gauza bera “espetxeak euren jabeentzat” edo “espetxeak apurtu” oihukatzea. Hortik dator betiko galdera: inoiz herri askea izango garenean, zer egingo dugu delitugileekin?

Posible da kartzela gabeko herririk?

Ziur naiz baietz, Euskal Herria oso jendarte txikia delako. Sinesten dut herri txikiak komunitatea eratzeak duten gaitasunean eta Euskal Herriak elementu guztiak betetzen ditu bestelako esperientziak lantzeko. Hortaz pentsatuko duen jendea behar dugu.

Kartzela-literaturak Euskal Herrian izandako pisuaz hitz-atzea osatu du liburuan Iratxe Retolazak. Hemen kanpoan baino oihartzun handiagoa izan du?

Inguruko herrietan baino gehiago bai. Herriaren errealitate bat mahai gaineratzen jakin du kartzela-literaturak, baina idatzitakoak ere zer pentsatua eman beharko liguke. Testu oso politikoak dira. Sarrionandiak oso lerro argia markatzen du hor, ez hainbeste testuengatik, kalean idazle izatek kartzelaratua den idazle izatera igarotzen delako baizik.

“Espetxeak alfonbraren funtzioa du: gizarteko zikinkeriak azpian gorde eta ikusten ez ditugun bitartean, zoriontsu gara. Horregatik, espetxeari buruzko hausnarketa kolektibo sakona egin behar dugu”.

Beste horrenbeste gertatzen da Mikel Antzarekin egun, nahiz eta bestelako kasua den kanpoan emandako urteengatik.

Hala ere, espetxearen eta euskal literaturaren arteko harremana antzinakoa da. 1936ko gerrari erreparatzen badiogu, Jokin Urainek sekulako lana egin zuen *Ez dago etxean* liburuan. Atzerago joanda, 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan, aurreneko euskaraz kartzelatik idatzitako zenbait bertso plazaratu zituen Bernart Etxeparek.

Lekukotasun pertsonala baino, bizipen kolektiboaren isla jasotzen du irakurleak.

Bai, eta hemen idatzi den kartzela-literatura gehiena ikuspuntu horretatik idatzi da. Badaude salbuespenak, Iñaki De Juanaren *Egunak* edo Josu Urrutikoetxearen *Giltzapeko Sukaldaritza* kasu. Nitasunetik idatzitako testuak izan arren ez dute hainbeste sakontzen gorputzean edo norberak kartzelan egoteko moduan; gehiago da ekarpen kolektiboa.

Azkenaldian liburu ugaritan ageri dira musika-aipamenak. Zuk atal bakoitza abesti batekin itxi duzu.

Musika erabiltzea, melomanoaren ezaugarria izateaz gain, bada kartzelaren ezintasunari lotutako ariketa. Aspaldi debekatu zen kartzeletan musika sartzea. Nik musika erosi eta Euskal Herrian ekoitzi berri ziren lan batzuk entzuteko aukera izan nuen, baina ez da ohikoa. Liburuan aipatzen ditudan azken urteetako abestiak lortu ahal izan nituenak dira, zaharragoak, aldiz, faltan sentitu eta entzun ezin nituenak.

Erosteke zortea izan dudana arren, ezin izan dut musika sortu. Instrumentu-eskaera guztiak baztertu zizkidaten segurtasunaren ize-nean. Liburuan kontatu dut, The Clash-ekoek Londresen “Preso bat, gitarra bat” kanpainak egin izan dituztela instrumentuak kartzelara sartzeko, baina oztopoak izugarriak dira.

Izenburua Lisabören abestitik, *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*. Baina kartzelaren itzala, presoaren baitan gelditzen da.

Bai, hori aipatzen dut Sarrionandiaren poemarekin liburu hasieran: “Preso egon denaren gogoia etengabe kartzelara itzultzen da”, pentsatuz nor egongo den gero zuk utzitako zeldan... Kartzelan nengoela behin eta berriz irakurtzen nuen poema eta esaten nuen, “ezinezkoa da, hemendik atera eta ze arraio itzuliko zaizu gogoia barrura!”. Baina benetan ulertu dut Sarrionandiak zioena, behin kalera atera eta urtebetera. Preso egon izana ezin da erauzi, hor geratzen da, nahiz eta gu ez garen gelditzen. ■



SALTO
ANTZEZLANA

Bizitzan ematen diren jauziez, bakarrizketa poetikoa

Metrokoadroka Sormen Laborategiaren eta JB Pedradas antzerki taldearen elkarlanetik sortutako lan berria dugu Salto. Umorezko bakarrizketa poetikoa da, Oier Guillanek idatzi eta Javi Barandiaranek antzeztua. Pako Revueltas izan dute zuzendari artistikoa eta Idoia Beratarbide atrezzoaz eta jantziez arduratu da. Antzerkian bakarrizketarik ez dela diote, bai, aldiz, publikoarekiko elkarriketa.


| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Metrokoadroka

“SALTO EGITEAK ezberdintzen nau hildakoetatik/ azazkalak luzatu ala ez,/ ilea luzatu ala ez./ Salto egiteak. Salto egiteak ezberdintzen nau./ Salto egiteak soilik”. Poema batetik abiatzen da Salto antzezlanak, Oier Guillan eta Javi Barandiaranen elkarlanean sortutako bakarrizketa poetikoa. Bizitzan eman beharreko jauziez dihardu antzezlanak, oholtzara ateratzea bera ere salto egitea delako.

Pertsonaia, aktorea eta testuegilearen arteko mugak lausotu egiten dira umorezko bakarrizketa poetiko honetan, bat eta beste nahasteraino. “Pertsonaia bat ikusiko dugu gela itxi baten barruan sei maniki-bururen hizketan, obsesio bakarra duela: Salto egiteak ezberdintzen nau hildakoetatik”. Pertsonaiaren azpian aktorea sumatuko dugu tarteka, pertsonaiaren larrutik sartu-atera dabilena, publikoa zuzenean itauntzen duena” azaldu digu Oier Guillanek, bakarrizketaren mamiaz galdetuta.

Bizitzan hainbat jauzi eman beharra daukagu eta saltoaren esapideak anitzak izan daitezke. Javi Barandiaran aktorearen aburuz, “ametsaz, obsesioez, koldarkeriaz, bakarda-



deaz, ezintasunaz, eromenaz, nitaz eta zutaz” hitz egiten digu bakarrizketak. “Oso egoera partikularretik jaio den gaia da, eta era berean oso unibertsala da” jarraitu du Oier Guillanek. “Gutariko bakoitza salto baten aurrean sentitzen zen bere bizitzan, proiektu hau abiatu genuenean. Baina era berean, edonor egon da inoiz bere bizitzaren norabidea markatu duen erabaki baten aurrean, modu kontzientean hartu ditugu guztiok edo gehienok inoiz horrelako erabakiak. Pertsonalak izan daitezke saltoak, edo jendarte batek taldean emandakoak” dio testuaren egileak.

Bi sortzaileen arteko hartu-emanak

Zuzendaritza artistikoan Pako Revueltas eta atrezzoan nahiz jantzien hauta-

ketan Idoia Beratarbide aritu badira ere, Oier Guillanek eta Javi Barandiaranek elkarrekin sortutako antzezlanak dugu *Salto*. Hala ere, “Pakok, bere abizenak adierazten duen moduan, lana iraultzen lagundu digu, iritsi gineneko puntutik haratago bultzatuz. Idoia Beratarbidek estetika zehatz eta koherente



bat eman dio lanari, gu geu gustu gutxiko edo gusturik gabeko pertsonak baikara. Eta ideiak ere eman dizkigu, estetika zehazteaz aparte” esan digu Javi Barandiaranek.

Sorkuntza prozesua, “lasaia, oso lasaia” izan dela iritzi dio Javi Barandiaranek. Oier Guillanek, berriz, zera dio: “lasaia bai, baina era berean trinkoa, prozesu guztiak izaten diren modukoa. Javik eta biok denbora luzea daramagu elkarrekin lanean eta kolaboratzen –*Gorria* (2002), *Eskubiko pareta* (2003) edo *Poza* (2012) antzezlanak eta beste kolaborazio mordo bat—. Antzeko momentuan iritsi gara proiektu honetara”.

Puntu berera heldu dira sortzaile biak bakarrikzeta honetan, sorkuntza prozesuan norbere esperientzia partekatuz. Baina non

**Urriaren 12an,
Pasaiaiko
Umorezko Antzerki
jardunaldietan
egingo dute aurre-
estrenaldia eta hil
berek 23an
estreinaldia, Bilboko
BAD jaialdian.**

dago errealitatea eta fikzioaren arteko muga? Zer du sortzaileena *Salto* obrak?: “Dena eta ezer ere ez. Dena, egin nahi genuen zerbait delako, eta hortaz gurea delako. Ezer ere ez, antzerkigintzan dena asmatuta edo esanda dagoelako, eta horrez gain, guk ez dugulako nahi ezer asmatu edo ezer berririk esan, edo nahi bai baina ezin, eta hortaz ez delako gurea” dio aktoreak. “Oso pertsonala da, gure proiektuak idatzi eta sortzerakoan erabat inplikatzeko garelako esaten dugun horretan. Era berean, antzerkia da, jolasa; umore absurdua eta poesia artifizioak izatera irits daitezke, eta hala ere oso gureak izan”.

Umorea eta poetikotasuna dira antzerki-bakarrikzeta garaikide honen osagaiak.



Liburu azoka

Eibarren, urriaren 17tik 26ra Unzaga plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

**Bizi
irakurriz!**



Umoreak eta garaikidetasunak ez dute inoiz harreman esturik izan. “Zaila da barre egitea eta garaikidetasun kutsu serioa batzea”, iritzi dio Guillanek. Barandiaran, ordea, ez dator bat: “Umoreak, antzerkian, ez du zertan komediaren kluba izan beharrik, umorea oso gauza serioa da. Guk ez dugu ‘garaikidetasun’ delako hori bilatzen. Gure lana garai-kidea da bizirik gauden heinean, baina izan

daiteke klasikoa, edo modaz pasatakoa. Edozein kasutan, garaikidetasuna eta umorearen artean hautatu beharko bagenu, umorea hautatuko genuke”.

Testuaren konplexutasunaz Barandiarani galdetuta, honoko azalpena eman digu: “Testua badago, eta testu horrekin borrokan ari den aktore bat ere bai. Borroka horretatik pertsonaia bat sortzen da eta pertsonaia horrek jolastu egiten du, hori guztia saltsa estetiko batean egosten da eta zerbitzatu egiten da”. Ez da bakarrikzeta konplexua, ziurtatu digunez, “oso basikoa da, gu geu basikokak garelako. Beraz, edozein pertsona basikok uler dezake zertaz ari garen, eta batzuei beraiez ari garela irudituko zaie”. Guillanen aburuz, “umorea barra-barra dauka bakarrikzetak, eta poetikotasunik ere badu dezente. Ez da batere konplexua. Orain arte publiko txikiekin egin ditugun frogetan, nor bere saltuez gogoeta egitera eramaten duela ikusi dugu, eta gainera, jendeak oso ondo pasatzen duela. Niri asko interesatu zait beti bakarrikzeta poetikoekin esperimentatzea, testuari dagokionean; kasu honetan horrelako testu mota batek zein bide har dezakeen ikusi ahal izan dut. Funtsean, aktoreari zein publikoari bere esperientziatik asko jartzeko aukera eman dezake horrelako testu batek”.

Datorren urriaren 12an, Pasaiaiko Umorezko Antzerki jardunaldietan egingo dute aurre-estrenaldia eta hil bereko 23an izango da estreinaldia, Bilboko BAD jaialdian. Publikoari erakusteko gogoz daude bi sortzaileak, “sufritzeari uzteko behingoz, edo beste era batean sufritzen hasteko, gauzak nola hartzen diren” dio Barandiaranek. Guillanek ere izan du azken hitzik oholtzara eramateko momentuaz: “Publikoari erakusteko gogoz nago neu ere, baina gozatzen amaitzeko, edo beste era batean gozatzen hasteko. Funtsean, publiko aurrera ateratzea salto egitea delako”. ■



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com

CuadraBus

www.cuadrabus.com


☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215

info@cuadrabus.com

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:


Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Literatura

Abisalia
Asier Serrano.
Txalaparta, 2014



Pentsatuz Abisalia

HITZEZ margotutako mundu oniriko bat da Abisalia. Asier Serranoren obsesioei atak zabaltzen dizkien eta, era berean, *descensus ad inferos* bidaiarako eskua luzatzen duen liburu eklektikoa. Poema edo ipuin liburua ote den sarri galdetu zaio idazleari; luzera laburreko 80 atalez eraikitako unibertso hau ipuin egituraren aurkezten bada ere, idazkeran, Serrano poetaren aztarna agerikoa da. Atal bakoitza koadro batean pintaturiko mikro zati baten antzera hautematen dugu, eta apurka-apurka, presentzia fisiko handiago bat eratuz joango dira.

Inkontzientearen laino honek mundu artistiko kolektibo bat iradokitzen du, edo hura izan da ene inpresioa. Nolabait esanda, Dalíren obra batean aurki gaitezke Serranorekin. Abisalian barrena nenbilela, Dalí 1931n margotutako erlojuen koadroa etorri zait burura. T. S. Eliot ikusi dut Abisaliako zoologikoan, Adan eta Eva tximuekin hizketan. Bere *Waste Land*-etik (1922) iheska, zebra bidea hartuta Hiri gorriara heldu dela kontatzen ari zen. Pozik ematen zuen Caine, Abel hil ez duelako. Aurrera eginez, Austerren *In The Country of Last Things*-era (1987) heldu naizela iruditu zait. Istant bateko sentazioa izan da, José Saramagorekinitsu geratzeari buruzko hausnarketetan sartu naizenean ezabatu baita.

Imaginario pertsonalago batean, Abisalia, gure espeziearen salbaziorako ezlekua da; XXI. mendeko

igande goizean “izara azpian ernalduko dugun unibertsoa” (8. orr), denboraz kanpo dagoena. Azken uholdearekin, “denborarik ez zuten izan denbora hitza bera deszifratzeko” (20. orr). Abisalian sortzen den eguzkia “lehertzeaz zegoen mahats ale izugarria, zeru ubel eta morean desorekan zintzilik” (97. orr) begitandu zaio bisitariari. Kram auzoan kokatzen den Lubam kalea “izen gabeko kale lokaztu geometriko ezinezkoen” artean existitzen diren toponimo bakarrak dira (60. orr).

Abisaliako unibertsoan bizi direnak ere baditugu. Hala nola, Luzio Dalio Tango, Kram auzoko urretxindorra ere deitua eta Rialdo Koddell maisuarekin amesgaiztoak dituen. Emazte itsua duen Emilard doktorea, ezagun egingo zaigun Lorelei, maitaleak, tximu bikiak, gobernadorea, arrotza, bisitaria, etab. Bakoitzak badu bere istorioa, baina zure esku, irakurle, bere mundu intimoenean barneratzea.

Atalak motz dira, baina ez nolanahi irakurtzekoak. Lasai, ongi murtzikatuz eta digestio patxadatsu bat eskaini behar zaio bakoitzari. Inkontzientearen dimentsioa aske dagoenean sar gaitezke errealitate-tik edan duen mundu desitxuratuan, interpretatu beharreko ametsen munduan. Hitz batean esateko, Abisalian. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



www.bertsozale.eus/xilaba

Senpere

Larreko Kulturgunean
Urriaren 11n, 17:00etan

Battitt Crouspeyre	Lur Renteria	Maddalen Arzallus
Maddi Sarasua	Miren Artetxe	Xumai Murua

Ume bilakatzeko elkartasunezko oparia

OHIKOA da gure Euskal Herrian elkartasuneko ekin-tza moduan abestiak idaztea edo kantuen bildumak osatzea. Ohikoa eta txalogarria, dudarik gabe. Baina oro har musikazale moduan gero eta gehiago eskertzen ditut horien artean ohikotik gutxienez zertxobait alden-tzen diren proiektu eta emaitzak, bederen original-tasun eta freskotasun puntu bat erakusten dutenak. Eta azken aldian umeekin lotutako halako bi proiektu piztu dute nire arreta. Bata, urte hasieran orriota- ra ekarri nuena, *Bakarririk eta libre* Imanol Urbietaren kantuetan oinarritutako lan aberatsa, baliabideetan eta parte-hartzean arranditsuagoa. Eta bestea, Mingots eta Garratzek konposatutako kantuekin, bi horiek, beste hainbat musikarik, gurasoek eta Pirritx, Porrotxek eta Marimototsek Argantzón Ikastolaren alde egindako diskoa.

Trebiñuko Ikastolaren aldeko ekimenak xumea dirudi oinarrian, herrikoia erabat eta esango nuke proiektua parte-hartzaileak batzen joan dela bidean, asmoez eta gauzak egiteko moduaz kutsatuta. Agian horregatik, hain zaila izan ohi den oreka lortu du diskoak: batutako kanteak berdin balio dute umeen zein helduen gozamenerako.

Pertsona askok eman dute onena disko honetan, baina ezin aipatu gabe utzi Mingots –Dut eta Kuraian aritutako Joseba Ponce– eta Garratz –Lisaböko kide Karlos Osinaga–. Biak ala biak ardu-ratu dira umei idatzitako kontakizunei musika jar-tzen, beraien ibilbidean jorratutako estiloetatik urrun, baina oso fresko, irudimentsu eta dotore. Alboan musikari fin jatorrak izan dituzte eta deneta-



Aupa Argantzón ikastola!
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Garratz eta Mingotsekin Trebiñun
Bonberenea Ekintzak, 2014

riko instrumentu eta gailuak –azken hauek etxean aurki daitezkeenak– erabili dituzte estilo eta aurreiritzien gainetik, umeak baili-ran, salto egiteko. Eta garrantzitsuena, disko-ak goitik behera ederto pasa dutela transmititzen du, umeentzat zein ume izan nahi dugun helduentzat funtsezkoa dena.

Txiribil sugandil tronboi eta hammondak irekitzen dute, Kusturicaren parera. Pirritx rapean aritu da, eta kantak, B52ren tankera hartu ahala, Nina Hagenen gisa egiten du eztanda. *Irria*-k Rolling Stones izan dezake abiapuntu, baina rocketik urrunduz gero eta dantzagarriago bilakatzen da. *Asteburua* soula da, *groove* handiarekin, nahiz eta tartean txirula zein *Teleno-co*-ak gehitu. *Nire kabuz baita ere* piezak Pistols-en antzeko introa badu ere, hammondarekin tenperatu-ra hartu eta Buzzcocks maisuen gisako punk-pope-tik hurbil, hit bihurtzen da. Perkusioa eta txirula ezkontzea ezinezkotzat hartu arren, Jethro Tull ere melodikoa izan daitekeela egiaztatu dute *Nahiago dut* kantak. *Mamia* estandarragoa da, Hertzainak-en usainean, skaren zipriztinekin, jendearen belarrietan geldituko da. *Laku hop* borobilak soula, hip-hop eta jazz garatuta, hildakoak ere dantzan jartzeko leher-gaia da. Eta diskoa ixteko, folk eta pop-rock iragazgailutik pasatako *Alavatik Arabara* ezaguna. ■

Iker Barandiaran



Kanporaketak

Galdakaon, urriaren 12an, 17:30ean, Torrezabal Kultur Etxean

Aitor Bizharra Ruiz

Beñat Ugartebea Ostolaza

Garikoitz Sarriugarte Onandia

Ibon Ajuriagozaskoa Garmendia

Iñaki Iburriotz Zuluaga

Julen Erezuma Arzanegi

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

Hitz gezidunak

LEKAIME, SERORA HERREN	ENTZUTEN EZ DUENA JAURALKI	GIZON	ALUMINIOA LEHERGAI EZAGUNA	BURURATU ABERE TALDE	IRITZI, ABURU IRRIKAN	EROTUTA ÖTZANDU, APALDU
		KIROL MOTA DAGO				
HIZKETA, SOLAS AXOLA			LURRARI DAGOKIONA AZKENA			
					NORENA ATZIZKIA PARE BAT	
... ZEDONG, LIDER TXINATARRA	GALIOA PERTSONALA- REN IZENA					KONTSONAN- TE BIKOTITZA AZTERKETA
		ELEMENTU KIMIKOA			JARAMON PERTSONALA- REN ABIZENA	
NAIZEN HONEK IZAN EZIK, SALBU						
	LITROA JASANGAITZ, GOGOR				GAU BELEA MAKILA LODI	
LANDARE MOTA INARROSTE- RA BEHARTU		LOTAN HILOBIETA- KO IDAZKUN	KOMUNIKA- BIDE MOTA ZENTZU EGOKI	MEGA PIRATAREN EDARI	LUTEZIOA HITZ EMATEA	NAZIO- ARTEKO LAGUNTZA SEINALEA
						SUFREA LETRA GREKOA
TXERRITEGI ARBENDO- LEZKO GOZOKI			GAUZA EXOTIKOEN ZALETASUN ANPEREA			
				ESKALA LAGUNT- ZAILA		



DANI BLANCO

Kike Amonarrizen umorea

Haurrak erdaraz

Soraluzeko adiskide batek kontatu dit duela gutxi han gertatutako pasadizo esan-guratsua.



Haurrak jolasean ari dira eta kafea hartzen ari diren gurasoetako bat erdaraz ari direla ohartu da. Mahaitik altxa, inguratu, eta hauxe esan die:

– Haurrak! Euskaraz egin!

Eta haurretako batek:

– Aizu! Gurasoetara ari gara jolasten!

Soluzioa

Z	O	M	A	N	T	A	S	M	O	S
U	I	S	T	R	E	N	A	L	I	S
O	E	T	L	U	R	E	N	A	L	I
A	L	E	L	I	B	I	K	A	S	U
J	A	N	T	Z	I	M	A	N	O	T
A	T	N	Z	I	B	I	K	A	S	U
G	O	D	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	J	A	N	T	Z	I	M	A	N	O
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N
G	A	R	A	N	T	Z	I	M	A	N
M	A	O	N	I	K	L	O	R	O	S
K	O	J	A	N	T	Z	I	M	A	N

FILM SOZIALAK 2014

la inon ageri ez den zinema

FILM SOZIALAK ekimenaren 6. edizioa egingo da aurten, Bilboko Alondegi-ko Golem aretoan. Ohiko tokitan erakusten ez diren 78 pelikula lehiatuko dira zinemaldi berezi honetan, munduko 44 herrialdeetatik etorritakoak. Dokumentala nagusi bada ere, fikzioa eta animaziozko pelikulak ere erakutsiko dira, luzeak zein laburrak.

Ekimen berezia da inondik ere, filmak sozialak direlako batetik, baina gainera, lehiatzen direnen artean %52 emakumeek sortu dituztelako. Aparteko begirada dakar, beraz.

Zinemaldiko zuzendari Carlos Vazquez barakaldoarraren aburuz, “Gizarte eraldaketarako duen indarragatik interesatzen zaigu zinema. Izaera soziala duen zinemagintza horri esker, gizarteak gauza asko ikas ditzake, eraldaketarako eta hausnarketarako mesedegarri. Hirigunean egotea nahi dugu, ikus dadila eta jendea ohartu dadila. Honek ere baditu ohiko zinemak dituen izarrak, erabat bereziak gainera”.

Duela sei urte, zinemaldiak proiektzio areto bakarra baldin bazuen ere, aurten 17 aretotan erakutsiko dira film hauek, eta guztira 259 emanaldi eskainiko dira. Jaialdia urriaren 17tik 23ra egingo da, Golem aretoetan, baina urrian barrena, Bilboaldeko DBHko zortzi ikastetxetan erakutsiko dira filmak. “16 urtetik gorako ikasleek osatzen duten publikoa biziki interesatzen zaigu. Egia esan, egun zinemaldiko publiko nagusia da”. Elorrio, Mungia, Portugalete, Iurreta, Erandio, Barakaldo, Aizerrota

eta Romoko ikastetxetan ere erakutsiko dira film sozial hauek.

Euskaraz egindako sei film erakutsiko dira. Eta horien artean onenari saria emango dio Bilboko Kafe Antzokiak. Eduki soziala izan eta euskaraz eginak diren filmak gero eta gehiago dira Carlos Vazquezek dioenez. EHUKo ikasle eta egile gazteei zuzendutako Zine Express atalean lehiatzen diren filmak “euskaraz dira nagusi”. Bestelako sariarik ere bada: Garapen Iraunkorren saria, Giza Eskubideen saria, Emakumeak egindako film onenari

saria, Genero Berdintasunaren saria, Kulturartekotasunaren saria eta Ikasle eta Ikusleen sariak.

Zinemaldiak dakartzan filmen gaiak ere anitzak dira, betiere salaketa eta eduki soziala nagusi. Besteak beste: jarrera homofoboak, lesfobikoak eta transfobikoak jasaten dituzten pertsonen buruzkoa; giza eskubideen urraketa Mendebaldeko Saharan; etxe-kanporatzeen inguruko poema bisuala; Ugandako kazetari baten historia; Afrikako etorkinen erasoak Melilla inguruan; Turkiako kurduen erresistentzia ekintzak; Brasileko zenbait zonaldeetan bi megaenpresen erakuntzaren kontra daramaten borroka...

Vazquezzen ustez, “film hauek ikusgai izatea da denetan garrantzitsuenak”. Horixe baita komertziala ez den zinemak duen arazorik larriena, ez dela eskuragarria: “Ez da agendetan ageri, ez du ordutegi onik, baztertu egiten da... 6 urte hauetan horixe izan da nabarmenena, zinemagintza honekiko interesa duen publikoa ugaria dela”.

Aurreko edizioan 6.600 lagun joan ziren zine aretoetara eta beste 5.000 lagunek internetetik jarraitu zuten jaialdia. Aurten, kopuru hori berdintzea espero dute.

“Guretzat, karteleran ohiko zinemagintzarekin lehiari egotea, edo jendeak zine soziala ikusteko sarre-
ra erostea, berez, lorpen handia da”, nabarmendu du Vazquezek. ■

Myriam
Garzia



Film sozialak 2014

Noiz: urriaren 17tik 23ra.

Non: Golem zinema aretoak, Bilbo.

Zotina arriskutsua al da?



Baso bete ur hotz edateak zotina kentzen lagundu dezake.

UME-UMETATIK, ia amaren umetokian gaudetik hil arte, asko edo gutxi, denok izaten ditugu zotin aldiak. Batzuetan gutxi irauten dute, bestetan gehiago, eta askotan jende artean gaudela irrigarri geratzeko arriskua dugu, kontrolaezina baita.

Antza, zotina gure arbasoengandik heredatutako zerbait da, arrainen arnas brankiaren edota igelen arnas sistemaren gogorapena. Egun, garunak esofagoa defendatzeko bidalitako seinalea da. Kasurik gehienetan urdaileen azidotasan handia edo ultzera edo antzeko zerbait dugunean sortzen dena.

Medikuen arabera zotinka aritzea ez da larria, baina larritasun aztarnak izan daitezke denboran luzatzen bada eta kroniko bihurtzen bada, hau da, bi egun baino gehiagor luzatzen bada.

Edozein kasutan, zotinka aritzea deserosoa da ia beti, baina badaude zotina agertzean lagungarri izan daitezkeen ekintza batzuk: baso bat ur hotz poliki-poliki edatea, birrikak bete eta segundo batzuetan airea askatu gabe eustea edo arnasketa erritmoa minutu batez-edo moteltzea. ■



Biziaren oinarria izan litezkeen molekulak galaxiaren erdian

IKERLARI TALDE alemaniar-estatubatuar batek karbono molekulak aurkitu ditu gure galaxiaren erdialdean dagoen Sagittarius B2 gas-laino erraldoian. Molekula horiek molekula konplexuagoak osatzeko oinarriak dituztela adierazi dute.

Orain arte espazioan aurkitutako karbono molekulak pilota itxura dute, hau da, atomoak egitura esferiko itxi batean kokatzen dira, eta oso zaila da egitura horietan beste elementu batzuk itsastea. Aldiz, orain aurkitutako molekulak ahate baten hankaren antza dute: irekiak dira, eta muturretan beste elementu batzuk koka daitezke. Horrek elementu konplexuagoak sortzeko aukera ematen du.

Aurrikuntzak indartu egiten du bizitzaren jatorriaren gakoa izar askoko guneetan dagoela diotenen teoria. ■



NASA

Esne Bidearen erdialdea.



Sexu-kromosomen izendapen klasikoa zalantzan

XX kromosomaduna emea da, XY duena, berriz, arra. Bai? Y kromosomak mutil itxura eman-go dio jaioberriari, eta ugalketa organo maskulinoak, hala da, baina sexu banaketa ez da hain sinplea. Hasteko, lehen esaldian esandakoa ez da beti betetzen. Bestetik, itxura eta sexu-organak bat etor daitezke kromosomekin, baina gerta liteke pertsona ez sentitzea bere itxuraren araberrako sexukoa. Edo hermafrodita izatea. Edo...

ttiki.com/82908

(Euskaraz)

Bihotzekoa izateko arrisku taldekoka zara?

Test anonimoa prestatu dute jaimemoncoeur.fedecardio.org/helbidean; hainbat galderari erantzun ondoren sistemak zure egoeraren laburpena eskaintzen dizu. Hori bai, emaitzak nola baiteko fidagarritasuna izateko galderei ahalik eta erantzun zintzoena eman behar zaie.

ttiki.com/82909

(Frantsesez)

Amazoniaren azpiko itsasoa

Parako Unibertsitate Federalesko (Brasil) ikerlari talde baten arabera, Amazoniaren azpian pilatuta dagoen urak 160 bilioi metro kubiko okupatzen du. Antza, oso sistema konplexu batean (ibaiak, geruzak...) antolatuta dago, eta Amazoniako oreka hidrologikorako funtsezkoa da.

ttiki.com/82910

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Jainkoxka

USAIN GOZOKO GOMA edo erre-txin lurrintsua ematen du likidanbarrak (*Liquidambar styraciflua*), anbar likidoa alegia. Berari zor dio izena: *liquidambar* hitzak hori dio, anbar likidoa, eta, gainera, burlaiz bezala, anbarra dariola dio *styraciflua*-k. Argi dago, XVII. mendean izena jarri ziotenean, darion anbarragatik nabarmena zela zuhaitz hau. Ameriketako indiarrei, txeroki eta abarri galdetu behar! Baltsamo eta botika gisa gurtzen dute.

Ikusgarria du udazkena likidanbarrak: arrosa, horia, larua, laranja-kara, gorria, gorrindola, purpura... Kolore festa izugarria. Gure paisaian udazkenak gutxitan erakusten digun gorriaren kide koloreena. Zabiltzan inguruan baten bat bizi bada, laster sumatuko duzu. Forma ere deigarria du: luzea, gaztetan zorrotza, gero zabalxeagoa. Adarretan, azalean, artelazki edo kortxo itxurako handitsu luzeak ditu, zumar (*Ulmus* sp.) batzuek ere izaten dituztenak bezalakoak.

Forma geometriko garbia eta kolore festa begitango erakargarria izateak izugarri lagundu dio. Naturalki lorez lore, fruituz fruitu, haziz hazi sekula iristea imajinatu ere egingo ez lukeen tokietan aldatu da, munduko lurralde epel guztietan. Paisajista eta arkitektoen makina bat proiektutan ikusiko duzu. Diseinatzaileek gurtzen



SHANE VAUGHN-CC BY

Goian, likidanbarra loratzen. Eskuinean, ale bat parke natural batean; gorri kolorekoa da.



JEAN-POL GRANDMONT-CC BY SA

duten zuhaitza da, jainkoxka.

Azaletik sortzen da, batik bat, anbarra edo goma. Ur hotzetik ur berora, eta hotzera eta berora ibilita, ongi beratu eta zanpatuz kentzen zaio esentzia. Goma horrek lehenagotik ezagunak ziren beste zuhaitz batzuen gomen tankera du, nonbait. *Stirax* generoko zuhaitzena. Hortik jarri zioten *styraciflua* abizena.

Inondik ere, egun hainbeste erabiltzen den estireno plastikoak,

hidrokarburoetatik eratorritako estirenoak ere, *Stirax* horri zor dio izena. Zuhaitz horietatik lortu baitzen lehenik. Hurrengo jogurta jan eta bere potoa birziklatzera botatzen duzunean, gogoratu zuhaitz gomagileaz. Eta egun hauetan, zuhaitz luze txorrotzak gorri-gorri ikusten dituzunean, udazkenari geurean gerarazteko piztu diren semaforoak dira. ■



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago,
handitzen, berritzen eta gizarte
eta ingurumenarekin
konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000



GOIZPER
ZURE KIDEA POTENTZI
TRANSMISIÓKO OSAGAIAITAN



Goizper
Ihinzadura
ZURE KIDEA POTENTZI,
IHINZADURA ZEHATZA

MATARI **IKK**
OSATU **ERRE**



Goizper
Bioteknologia
NATURAN INSPIRATUA

BIOTEC **oabe**

Nomenclator, Antzinaroko giza Googlea

VATIKANOKO MUSEOA



Augusto enperadorea (K.a. 63-K.o. 14) bere nomenclatorraren memoria eskasaz kexatu ohi zen, Makrobioren arabera. Nomenclatorrak Erromako goi gizarteko hiritarren izenak, aurpegiak eta datuak gogoratu behar zituzten esklaboak ziren.

ERROMA, K.A. I. MENDEA. Makrobiok *Saturnalia* lanean jaso zuenez, Augusto enperadorea oso kontentagaitza zen bere nomenclatorrari zegokionez, eta sarritan kexu zen hark memoria nahikorik ez zuelako.

Gaur egun *nomenclator* hitzak “izenen katalogoa” esan nahi du, baina jatorrian nomenclatorrak hezurharagizkoak ziren. Erromatar politikari edo goi gizarteko kide orok behar zuen nomenclatorra alboan, giza entziklopediarenak egiteko. Oroimen izugarriko esklaboak eragin handiko pertsonen izenak ikasi behar zituzten, haien familien historia, edozein datu aipagarri, zer gertakari sozialetan nabarmentzen ziren, zer negoziotan aritzen ziren, zenbaterainoko arrakasta zuten jarduera haietan, zenbat mesede zituzten eginak, zenbat jasoak... Festetan nahiz bestelako topaketetan, esklaboak datu horiek guztiak zuzenean eman behar zizkion nagusiari, hark behar ahala. Erromako eliteen artean, maila berekoak ezagutzea eta ezagutza hori jakinaraztea funtsezkoa baitzen. Hala, nomenclatorraren rola erromatarren ustelkeria sare korapilatsuari eusteko sortu zen, eta patrizioei memoria perfektuaren ilusioa atxikitzen laguntzeko. Horregatik

nomenclator bikainenek milaka patrizioren izenak gorde behar zituzten beren markatze bizkor mnemoteknikoan.

Baina horien berri baino, nomenclator kaskarrenen berri iritsi zaigu gehiago. Esan bezala, Augusto ez zegoen batere gustura berearekin. Beti ere Makrobioren arabera, behin esklaboa Forora bidali zuen eta alde egin baino lehen zera esan omen zion: “Har ezazu gomendiozko gutun hau, han ez duzu inor ezagutzen eta”.

Seneka (K.a. 4-K.o. 65), aldiz, adineko nomenclatorrez trufatzen zen, aurpegiez ahanzten zirelako eta gezurrezko izenak asmatzen zituztelako.

Adriano enperadorea nomenclatorren hutsak etengabe zuzentzen aritzen omen zen. Beste zereginik ez zutela esaten zien eta berak, orotariko kezkak izanda ere, izen bat behin entzun eta bizi osoan ahanzten ez zuela aurpegiratzen zien. Orduan zertarako behar zituen nomenclatorrak? Horixe pentsatuko zuen Katon Gazteak (K.a. 95-46). Mirarizko memoria omen zuen eta, hortaz, oroimen esklaboak kontsultatu beharrik gabe lortu zuen elite nagien errespetua. ■



Arrastoak

Bi istripu, parabrisaren jatorri

BEHIN, Edouard Benedictus asmatzaile frantziarrari laborategiko ontzi bat erori zitzaion. Kristala txikituta geratu zen; txikituta baina bat eginda. Nitrozelulosa soluzio bat zeukan ontziak, lurrundu ondoren beiraren inguruan geruza moduko bat osatu zuena. Puskatu ondoren beira zatiak bat eginda atxikitzen zituen substantzia aurkitu zuen, baina orduan ez zitzaion aplikazio praktikorik bururatu.

Handik urte batzuetara, 1903an, Benedictusek jakin zuen auto istripu batean haizetakoaren kristal hautsiek neskatobati aurpegia desitxuratu ziotela. Lurrera eroritako matraren irudia etorri zitzaion burura. 24 orduan, urte batzuk lehenago ausaz aurkitutako soluzioaren antzeko zeluloide itsasgarria lortu zuen, eta haren bidez kristalezko bi xafla itsatsi zituen. Beira ijeztua sortu zuen, automozioaren bilakaeraren segurtasun elementurik garrantzitsuenetakoa. ■



MANUEL RUIZ PASQUAL

Beira ijeztuak hautsitako beira zatiei bat eginda eusten die, parabrisaren asmatzaileak istripuz jakin zuenez.

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

Burujabetzarako bide-orririk ez Euskal Herriko mapan

Argia Egunaren kariatara antolatu genuen mahai-inguru musikatua Usurbilen, *Independentzia ikusmiran: zein estrategia behar du Euskal Herriak?* lelopean. Asier Blasek eta Iñaki Antiguedadek nabarmendu zuten independentziarantz jotzeko ezinbestekoa dela jendartea aktibatzea. Carles Belda musikari euskaldun-katalanak gidatuta, hesolari bultzaka amaitu zuten entzuleek, Lluís Llach-en *L'Estaca* kantatuz.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Dani Blanco

INDEPENDENTZIA LORTZEKO zer egin behar genuke Euskal Herrian? Horixe izan zen Usurbilgo Sutegi kultur etxean lehen momentutik plazazatutako genuen galdera nagusia. Itzulimitzuliak albo batera utzi eta aho-bilorik gabe hitz egiteko gaiak mahairatu genizkien bi hizlariak. Ez bata ez besteak zuten huts egin. Asier Blas politologo eta irakasleak estrategaren hoztasunez konparatu zituen munduko beste nazioen eta Euskal Herriaren arteko aldeak; Iñaki Antiguedad hidrogeologia katedradun eta politikan arituak, berriz, pasioz azaldu zituen burujabeago izateko urratu beharreko bideak.

Zer eragin izango du Eskoziako ezetzak Euskal Herrian? Eta Katalunian?

Eskoziako erreferendumaren emaitza jakin berritan eta Katalunian kontsulta egiteko pauso garrantzitsuak emateko unean, galdera ezinbestekoa luzatu genien: nola eragingo du Eskoziako ezetzak Euskal Herrian eta Katalunian?

Jarritako puntuari berehalakoan erantzun zion Blasek: “Eragin gehiago izango luke baietzak ezetzak baino (...) Ezetzak erakutsi duena da Europaren kontestuan erabakitze eskubidea egikaritu daitekeela. Eta hortik harago ezin dugu joan. Erreferente bat da, baina ez da eredu bat”. Beste

autodeterminazio prozesuetan ikusi izan duena da, adostua denean zail dela aurrera eramatea “ez dagoelako muturreko tentsiorik”. Ideia hori behin baino gehiagotan errepikatu zuen Blasek: “Nik esango nuke Katalunia gertuago dagoela independentziazik Eskozia baino, tentsioa Katalunia eta Espainiaren artean handia delako”.

Antiguedadek Eskoziako prozesuaren izaera demokratikoan jarri zuen azpimarra: “Ez da gertatu Quebecen, Atlantikoaz bestalde, ezta Europa ekialdean ere, mendebaldean gertatu da. Beraz posible da, baina konplexua da. Konplexutasun horrek estalki asko zabaldu ditu kontzientzietan, gauzak ez dira sakralizatu izan ditugun bezala”.

Noiz eta nola desobeditu behar luke herrialde batek independentzia lortzeko?

Konstituzio Auzitegiaren horma topatu du Kataluniako kontsultak eta

debekua desobeditzearen inguruko eztabaida sortu du CDC eta ERCren artean, baita Generalitatearen barruan ere.

Antiguedadek Atlantikoa gurutzatzen ari den hegazkin baten gisan jarri zuen Katalunia, atzera bueltatzerik ez dagoen puntua igarota: “Konstituzioaren kontrakoa dela esatearekin ez da ezer amaitzen, agian gurean bai, baina han ez. Azaroaren 9tik aurrera jarraituko du prozesuak”.

Masen exekutiboak jorratu behar lukeen bide-orria garbi du Blasek, Lituaniako esperientziazik abiatuta: “Kataluniari komeni zaiona da hauteskunde plebiszitario batzuetara joatea, independentismoak gehiago garbi batekin irabaztea, eta aldebakarreko aldarrikapena egitea”. Blasen ustez, azaroaren 9an parte-hartze txikia izango balitz –%45-50ekoa– emaitzak ez luke indarririk edukiko, eta Katalunia eskumen autonomikoak deseginda eta independentzia aldarrikatu gabe geratuko litzateke.

Azken finean, desobedientziaren eraginkortasuna da neurtu beharrekoa. Antiguedaden aburuz alternatiba bat edukitzea gakoa da horretarako: “Txanpon bereko bi aldeak dira”.

“Gurean independentista izatea nortasun kontu bat zen. Ez zegoen proiekturik. Besteengandik desberdintzeko modu bat zen, ideologikoa”

Asier Blas



Asier Blas: "Munduko nazio gehienek aldarrikatzen duten lurraldea gero ez da gauzatzen estatua lortzen dutenean. Guk zer arazo daukagu? Euskal Herriak 20.000 kilometro koadro baditu, hortik 7.000 baino ez direla EAEnak".

Bake prozesuaren blokeoak nola baldintzatzen du Euskal Herrian mugimendu independentista sendo bat sortzea?

Bake prozesua independentzia lortzeko "balazta" dela iritzi dio Blas-ek, baina geroz eta gutxiago. Bere ustez amaitu dira garai bateko mobilizazio handiak eta jendarteko sektore bat presoen egoeraren inguruan oso kontzientziatua dagoen arren, gainerakoei "bost axola" zaie: "Gero eta garbiago dago bakegintzari dagozkion kontuak alde batetik joango direla eta soberaniari dagozkionak bestetik (...) Gure Esku Dagok lortu zuen amestea posible dela mobilizazio ziklo berri bat has-

tea. Ilusio hori pizten bada, bakegintzaren ingurukoak sozializatzea errazago izango genuke".

Antiguedadek pragmatismoaren aukerekin hitz egin zuen eta horren adibide jarri zuen dispartzioarekin amaitzeko Sare plataforma sortu izana: "Orain amnistia ez dugu aipatzen (...) berriki makina bat preso atera dituzte espetxetik Estrasburgora jo gurelako; garai batean hori ezinezkoa izango litzateke".

EAEn, Nafarroan eta Iparraldean abiadura ezberdinak?

"Pozik hartzen dut azkeneko urteetan argi eta garbi esaten dela: hiru erabaki esparru, hiru erritmo". Hitz

horiekin Antiguedadek argi eta garbi azaldu zuen iritzia lurraldetasunaren gaian. Bere ustez Nafarroan nafarrek erabaki behar dute, Iparraldean iparraldekoek... Eta gogoeta ere eskatu zuen: "Lurralde batasuna bai, baina zer da, federazio bat? Konfederazio bat? (...) Hau dena zehaztu egin behar da".

Gauza bera Blas-ek: hausnartu, pentsatu eta eztabaidatu. Politologoak korapiloaren muinera jo zuen: "Munduko nazio gehienek beretzat aldarrikatzen duten lurraldea gero ez da gauzatzen estatua lortzen dutenean". Eslovenia adibide: Italiako iparraldeko Trieste hiria eta Austriako Carintia izatez Eslovenia dira,



Asteasuko Industrigunea
G-gunea Atea 9. 112. pabilioia
20159 Asteasu - Gipuzkoa

© 943 69 20 54 www.lurlan.org lurlan@lurlan.org





Iñaki Antigüedad: “Funtsezkoa da sentitzea boterea gertu daukazula. Burujabetza ez da planteatu behar hainbeste ekonomiatik, gogobetetze pertsonaletik baizik”.

baina Yugoslaviatik banandu zenean ezin izan zituen beretzat hartu. “Guk zer arazo daukagu? Euskal Herriak 20.000 kilometro koadro baditu, hortik 7.000 baino ez direla EAErenak, eta horrekin baizik geratzea gogorra da”.

Blasek epe motz-ertainean EAEn –edo asko jota Hego Euskal Herrian– ikusten du posible prozesu independentista bat. Eta hemen ñabardura: “Eduki aldetik oso ezberdinak lirateke EAE hartzen duen estatu bat edo Hego Euskal Herria hartzen duena, adibidez, euskarari dagokionean”.

Ezeren aldeko hautua egin aurretik, proiektu bat eduki eta horretaz hitz egin behar dela uste du Blasek: “Gurean independentista asko zegoen, baina independentista izatea nortasun kontu bat zen. Ez zegoen proiekturik. Zure burua independentista izendatzea zer zen? Besteengandik desberdintzeko modu bat, ideologikoa”. Ildo horretan, Antigüedadek ere burujabetzarantz egiteko bide-orri baten falta sumatzen du.

Aurreikus liteke EH Bilduren eta EAJren arteko aliantzarik burujabetzaren arloan?

Asier Blasek ez du epe motzean halakorik ikusten. Hegemoniarako borroka betean ikusten ditu bi alderdiak, eta Katalunian ERCekin eta CiUrekin gertatu ez bezala –egoera 2010eko

hauteskundeetan desbloketatu zen CiU nagusitu zenean– hemen horrela jarraituko dutela uste du.

“Zein da alternatiba? Jendartea. Behar duguna da geroz eta jende elizkoi gutxiago eta geroz eta independenteagoa. Katalunian kultura liberala, anarkista nahi bada, askoz zabalduago dago, indibiduoaren askatasuna gehiago zaindu dute”. Blasen ustez alderdiak dira politikaren elizak: “Apaizak esaten badu tokian tokiko erreferendumak ez direla egin behar, Katalunian 2009tik aurrera egin ziren bezala, parrokiak ez ditu egiten. Beraz, gizarte mugimenduak independenteagoak izateko, behar duguna ez da desideologizatzea, independente izateak esan nahi du alderdiekiko kritikotasuna mantentzea”.

“Hemen Eskoziakoa moduko erreferendum bat egingo balitz, EAJk Yez bozkatuko luke. EAJ ez da Convergència, ezta Salmond alderdia ere”

Iñaki Antigüedad

Kaleko mugimenduak klase politikoa bultzatu behar duela ados dago Antigüedad eta hor sakondu daitekeela dio, baina EAJ ez du horretan ikusten: “Hemen Eskoziakoa modu-

ko erreferendum bat egingo balitz, EAJk Yez bozkatuko luke. EAJ ez da Convergència, ezta Alex Salmond alderdia ere”. Ezker abertzaleko kide historikoa beldur da jeltzaleek ez ote duten Madril lekin negoziatuko “erantzun bakarreko galdera bat, Gernika-ko Estatuarekin egin zuten bezala, hau da, autogobernuaren gaurkotze bat”. Dena den, bere aburuz hauteskundeak emaitzetatik ezin da estrapolatu jendarteak burujabetza gehiagori emango liokeen babes maila: “Planteatuz gero ‘nahi al duzu hemen erabaki’, PSEri botoa ematen dion jende askok ez al luke baietz esango?”.

Zer egin dezakete erakundeek, eta zer herritarrok, egunerokoan independentizarantz urratsak emateko?

Antigüedadek, mahai-inguru osoan zehar lerro gisa erabilitako ideia bati heldu zion galdera honen aitzakian: “Jende asko ari da egunerokoan horretan, Usurbilen eta beste edozein tokitan; elikagaien zirkuitu laburrak bultzatzen ditugunean, adibidez. *Gloteia* falta zaigu jabetzeko gertutasunetik ari garela burujabetzara bidean”. Gertutasunaren defentsa hori boterearekin ere lotu zuen mahai-inguruko beste momentu batean: “Bada gauza bat funtsezkoa: sentitzea boterea gertu daukazula, txikia polita dela, hurbiltasuna... Burujabetza ez da planteatu behar hainbeste ekonomiatik, baizik eta gogobetetze pertsonaletik”.

Erakundeek egin dezaketenean jarri zuen arreta Blasek, aldiz, puntu honetan. Hala, berriz ere Katalunian adibidera joz, bertako Institut d’Estudis Autònoms aipatu zuen, burujabetza ikertzen duen erakundea, eta gogorarazi zuen TV3k duela gutxi arte *naizio batentzat telebista* leloa zeramala: “Nik halakorik ez dut ikusten ETBn”. Horrelako gauza sinbolikoetan euskaldunak atzetik gabiltza Blasen irudikoz.

Zer zentzu luke euskalduna ez den euskal estatu batek?

Ander Perez kazetariak Rob Dunbar Edinburgoko unibertsitateko irakaslea elkarrizketatu zuen aste-kari honentzat (ARGIaren webgu-

Carles Belda: «Badakizue nola erraten den gaelikoz yes?»

CARLES BELDAREN soinu txikiak Laboaren *Txoria txori* kantaren doinua zabaldu zuen Usurbilgo Sutegi kultur etxearen aretoan ekitaldiaren hasieran. Ondoren berriz ere hartu zuen txanda euskaldun-katalanak.

Beldak urte mordo daramatza Zugarramurdin bizitzen, baina Kataluniako ezkerreko mugimendu independentistarekin lotura estua mantentzen du. “Kataluniar kolonoa sentitzen naiz Euskal Herrian” esan zuen. “Ama” hitz palindromotik abiatuta (katalanez *cap i cua*, burua eta isatsa) Zuberoako sehaska kanta jo zuen: “Katalunian nire ustez alde duguna da emakumeak bideratzen ari direla prozesua, eta hori sumatzen ari da, finki, beldurrik gabe eta finitu arte, behar den bezala”.

Beldak ederki ezagutzen ditu, hemengo eta hango errealitateak, baita beste hainbat hizkuntza gutxituenak ere. “Nola erraten da gaelikoz yes?” zirikatu zituen entzuleak.

Errepertorio inprobisatutan tartea izan zuen *Segoviako ibesa* filmarengatik ezaguna zaigun *Rossignol que vas a França XVII*. mendeko abesti katalan tradizionalarentzat (“lehen aipatu dugu *Yes*, nik proposatzen dut *ibes*”)

Okzitanierazko kopla odoltsu batzuk abestu zituen besteak beste Beldak, Frantziako kulturari haur kanta bihurtu direnak: “Zugarramurdin aldez, akelarrea bihurtu da pegatina bat autoetan eta paella frankismoaren ikur”.

nean duzu bideoa ikusgai). Dunbarek dio eskoziarrek oso garrantzitsutzat dutela gaelikoa, baina ez dutela beharrezko ikusten hizkuntza jakitea.

Euskara, aldez, identitate ezaugarri nagusitzat dugu euskaldunok, baina normalizazio linguistikotik urrun gaude oraindik. Nola lotu hori independentiarekin? “Euskal estatu batez ari bagara, euskara ezinbestekoa da”, irmo erantzun zion Antiguedadek gure galderari.

Blas ere iritzi berekoa da. Baina hara bere erantzuna: “Irlandako estatuak daukan zentzu bera izango luke edo Eskozia independenteak izango lukeena. Independentzia gradu txikiagoa lukeen estatua litza-teke”. Blasek azaldu zuen euskara garrantzitsua dela berez, eta inde-

eta baita Llach-en *L'Estaca*-rentzat ere (*Agure zahar batek zion*). Abesti horren euskarazko eta katalanezko bertsio originalaren artean dagoen desberdintasun bat aipatuz amaitu zuen, umorez, Beldak: Batean protagonista lasai asko dago etxe atarian, “eguzkitan, gurdiak nola pasatzen diren ikusiz”, bestean aldiz, goizean goizetik lanera doa protagonista bera. Asmatu zein den katalana eta zein euskalduna... “Nik botako dut doinua eta zuek egin nahi duzuen, lana edo ez”.



pendentzia gehiago izateko tresna gisa ere bai.

Hortik aurrera gai arantzatsuan sartu zen: “Kontziente izan behar dugu traba bat ere izan daitekeela”. Euskal Herri independente batean gaztelania debekatuko den beldur diren ikasle erdaldunak ditu buruan hori esaterakoan: “Intelligenteki jokatu behar dugu euskarekin, jakinda estatua ezinbestekoa dela euskararentzat (...) Estatu horretan eremu elebakarrak egon behar dira, zeren eta hizkuntza batek iraun behar badu, antolakun-

tza instituzional batean hegemonia osoa duelako izango da, horrek bakarrik ekarriko baitio erabateko normalizazioa”.

Hala amaitu genuen mahai-ingurua, edukiz mamitsua eta, Argia Egunean Julio Soto bertsolariak kantatu bezala “Orain Kataluniara lehen Eskozi(a)ra / lepoko minez eurei begira”. ■

argia.com Mahai-ingurua bideoz ikusteko aukera duzu gure webgunean, Argia Egunaren kanalean.



EUSKARA D EREDUAN IKASI DUTEN GURASOAK

%73k euskara hutsean egiten du haurrekin

Euskara D ereduan (eta ez etxean) ikasi duten gurasoek seme-alabei zein hizkuntzatan hitz egiten dieten eta hautatutako hizkuntza hori zergatik erabiltzen duten aztertu du Aitor Villanuevak, Suediako Dalarna Unibersitate Publikoan aurkeztutako ikerketan. Eskuartean izan dugu lana, eta ondorio interesgarrienak plazaratuko ditugu hemen.

| SAIOA LABAKA |

2001. URTETIK Suedian bizi da Aitor Villanueva, 39 urte ditu eta Eran-diokoa da. Ingeles Filologia ikasi zuen Gasteizen, eta ikasketetako azken urtea Suedian egin zuen Erasmus bidez. Harrezkero, espainiera eta ingeles irakasle dabil Suedian. Villanuevaren etxean hiru hizkuntza erabiltzen dira: euskara, frantsesa eta suediera. Sei eta hiru urteko semeak dauzka. Emaztea frantsesa izanik, haurrei frantsesez hitz egiten die, eta aitak berriaz, euskaraz.

Ikerketaren helburua izan da Hegoaldeko eskualde erdaldunetan (euskaldunak %20 baino gutxiago diren eskualdeak) euskara D ereduan ikasi duten gurasoek seme-alabei euskaraz edo gaztelaniaz egiten dieten aztertzea. Eta, era berean, hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko zergatiak identifikatzea; horren atzean jarrera edo arrazoi instrumentalak edo integratzaileak dauden jakiteko.

Datuak lortzeko erabilitako metodologia galdetegia izan da. Ondoko ezaugarriak bete dituzte parte-hartzaileek: seme-alabaren bat edukitzea, ama-hizkuntza gaztelania izatea, eskualde erdaldun batean jaio eta bizitzea, eta ikasketak D ereduan burututa izatea. Erantzun duten 138 lagunen %35 gizonezkoak izan dira, eta %65 emakumezkoak.

Bi datu mota jaso ditu Villanuevak galdetegiaren bidez. Batetik, parte-hartzaileen ezaugarri soziolin-guistikoak: generoa, guraso eta aito-na-amonen jatorria, ikasketa maila, identitatea, bikotearen euskara



Azterketaren emaitzen arabera, jatorriz euskaldunak ez diren gurasoen %73k euskaraz egiten die haurrei; %23k euskaraz eta gaztelaniaz; eta %4k gaztelaniaz.

maila, ideologia politikoa eta abar. Bestetik, parte-hartzaileek euren seme-alabekin erabiltzen duten hizkuntza eta hautu horren zergatiak. Hamalau aukera edo arrazoi aurkeztu zitzaizkien parte-hartzaileei, garrantziaren arabera sailka zitzaten. Aukera horien artean jarrera instrumentalak eta integratzaileak planteatu zitzaizkien. Hizkuntza, nolabait, onura ekonomiko eta sozialak lortzeko erabiltzen denean, jarrera instrumentalez ari gara. Bestalde, hizkuntza jakin batekiko jarrera integratzaileak lotura zuzena du hizkuntza eta hiztun-komunitate horrekiko atxikimenduarekin.

Ikerketa-lanetik ateratako ondorio esanguratsuenetako bat da euskararen transmisioaren aldeko apustua egiten dutela guraso gehienek. Parte-hartzaileen %73k euskaraz hitz egiten diete seme-alabei, %23k bi hizkuntzetan, eta %4k, gaztelaniaz. Euskaraz eta bi hizkuntzetan egiten dutenen kopurua batuz gero, esan daiteke %96k erabiltzen dutela euskara etxean. Nabarmenezkoa iruditzen zaio Villanuevari datua, oro har, antzerako beste ikerketa batzuetan kopuru txikiagoak ateratzen baitira. Hainbat adituk diotenaren arabera, joera hori mantenduz gero, euskara euren ama-hizkuntza

izango dutenen kopurua –gaztelaniarekin batera edo ez– bikoiztu egingo da datozen 30 urteetan. V. Inkesta Soziolinguistikokoan joera hori belaunaldi gazteetan antzematen hasi dela gaineratzen du Villanuevak.

Parte-hartzaileen %65ek bikotekide euskalduna dutela adierazi dute, %22,4k euskara zerbait ulertzeko eta hitz egiteko gai direnak dituzte, eta %12,6k gaztelania soilik dakiten bikotekidea dute. Bikotekideen euskararen inguruko hizkuntza-gaitasunak eragin zuzena du hizkuntza bat edo bestea transmititzeko garaian.

Amak oso kontuan hartzen du aitaren hizkuntza

Ikerketak gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun nabarmena ere plazaratu du. Gizonezkoen %70ek euskaraz hitz egiten diete haurrei euren bikotekidea euskalduna izan edo ez. Emakumeen %85ek euskara transmititzen dute etxean, baina euren bikotekidea euskalduna bada. Hala ez bada, euskararen transmisioa %40ra jaisten da. Datu deigarria da Villanuevarentzat, ez baita ohikoena jarrera hori egin izan diren azken soziolinguistika-ikerketan gehienetan.

Euren burua euskal herritar gisa identifikatzen duten parte-hartzaileen %78k euskaraz hitz egiten diete seme-alabei, eta %19k bi hizkuntzetan. Argi dago, lotura zuzena dagoela euskal identitatearen eta euskararen aldeko transmisioaren artean. Bestalde, euskal herritar bezain espainiar sentitzen diren parte-hartzaileen %50ek gaztelaniaz hitz egiten diete seme-alabei, eta %25ek bi hizkuntzak erabiltzen dituzte. Azkenik, euren seme-alabekin gaztelania hutsean aritzen diren gurasoek ez dute euskal jatorririk, oro har; euren gurasoetako bat gutxienez eta euren aitona-amonak Euskal Herrikan jaiotakoak dira.

Arestian adierazi bezala, euskararen transmisioaren aldeko jarrera erakutsi dute parte-hartzaile gehienek, eta hizkuntza-jarrera integratzaileei eman diete garrantzia. Jarre instrumentalak integratzaileen maila berean jartzen direnean, ordea, euskara hutseko transmisioa

oztopatu egiten da. Bestalde, Villanuevaren iritziz, euren seme-alabei euskaraz egiten ez dieten gurasoek, oro har, ez dute hizkuntzarekiko jarrera txarrik; bestelako arrazoiak sartzen dira jokoan. Euskara eskolan ikasi dutenei begira, hizkuntza erabiltzeko erraztasun, baliabide eta esparru gehiago eman behar zaizkiela uste du eta hizkuntza erabiltzeko presio falta handia dagoela nabaritzen du; bai gizartearen bai administrazioaren aldetik.

Hurrengo belaunaldiko gurasoek berdin jokatu al dute?

Aipatu ondorioak azaltzeaz gain, hausnarketarako bidea ere zabaldu digu egileak, hainbat galdera plazaratuz: mantenduko al da euskararen aldeko transmisioaren joera aurreantzean? Berdin jokatu al dute D ereduan ikasten ari diren etorkizuneko gurasoek? Jarraituko al dute ikerketa honetan parte hartu duten gurasoek euren seme-alabei euskaraz egiten haiek hazten doazen bitartean eta egunerokotasunak euskara maila altuago bat izatea eskatzen dienean? Eta eutsiko al diote haurrari euskaraz hitz egiteko ohiturari, seme-alabak gaztelaniaz erantzuten hasten direnean?

Gogoetarako bide horretan, Villanuevak hainbat ikerketatan agertzen den joera mahai gainean jartzen du: etorkizuneko guraso izango direnen artean, jarrera instrumentalak gailenduko dira integratzaileen aitzinean. Ikerketek iradokitzen duten bezala, horrek guztiak euskararen erabileraren gutxitzea ekarriko al duen galdetzen du Villanuevak. Edo, besterik gabe,

pixkanaka euskara esparru sozio-ekonomikoan egiten ari den bidea ikusita, hiztunek arrazoi instrumentalak antzematea logikoa izan daitekeela planteatzen du, jarrera integratzaile eta identitarioen maila berean.

EAEn eta Nafarroan zein hizkuntza politika jarriko dira abian etorkizunean? Ikerketako emaitzak ikusirik, ezinbestekotzat jotzen du Villanuevak eskualde erdaldunetan euskara erabiltzeko guneak sortzea, bertakoen hizkuntza gaitasuna hobetzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko. Esaterako, aisialdiko jarduerak indartzea iradokitzen du; kirola, musika eta zinearekin loturiko ekintzak edota internet eta teknologia berrien inguruko egitasmoak antolatzea. Uda honetan Erandion izan da oporretan Villanueva familiarekin. Semea igeri egiten ikasteko ikastaro batean apuntatzeko asmoz, herriko kiroldegira joan zen informazio bila. Bere semeek gaztelaniaz ez dakitenez, euskarazko ikastarorik ba ote zegoen jakin nahi zuen. Monitore guztiek euskaraz bazekitela adierazi zion harrerakoak, baina irakasle bakoitzaren esku zegoela zein hizkuntza erabili. Haur batzuek euskaraz egiteko asmoa zutela, beste batzuek gaztelaniaz... Irakasleak bere semeari, aparte, euskarazko argibideak emango zizkiola gaineratu zion. Zertarako balio du euskara ikasteak gero aisialdian ez bazaio erabilgarritasunik ikusten? Argi du Villanuevak euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak sortu eta arautu behar direla. ■



Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Galtzeko ezer ez zeukanean irabazi du Urko Rodrigok

Urko Rodrigo Atarrabiako Caja Ruralen bulegoan itxi zen urriaren 2ko goizean. Bi kreditu sinatu zituen finantza erakunde horrekin eta ezin zituen ordaindu.


| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“ESKUA BIHOTZEAN dudala esaten diet [Caja Ruraleko] zuzendariei kreditu horiek sinatu nituenean inoiz ez nuela pentsatu nagoen egoera ekonomikoan egongo nintzenik eta oso mingarria izan da niretzat egoera hau: hainbeste indar jarri dudanez etxea galduko dut, zor handiarekin geratuko naiz eta jada nire amari enbargoak egiten ari dira. Nire egoeran, ez daukat galtzeko beste askorik”, irakur daiteke Urko Rodrigok bere egoeraz informatzeko zabaldu duen blogean. Negoziazioa lortzea izan da itxialdiaren helburua, etxea galdu eta zorrekin ez geratzeko. Azkenik, etxea zorren truke ematea adostu du.

Bi kreditu ordaindu ezin

2007. urtean hasi zen dena: Rodrigok Saldisen lokal bat erosi zuen, berritu eta etxe bihurtzeko asmoarekin. Obrak bere kabuz egin nahi zituen, baina Udalak proiektu bat egiteko eskatu eta hori ordaindu ahal izateko Cajar Ruralen kreditu pertsonala eskatu zuen (14.000 euro). Ondoren, beste kreditu hipotekario bat ere eskatu zuen (97.000 euro). Kreditu horretarako berme-emailea Rodrigoren ama izan zen.

2012ko uztailean Rodrigo diru-sarrerarik gabe geratu eta kreditu pertsonala ordaindu ezin da geratuko da, 1.275,04 euro itzultzea besterik falta ez zaiola. Urte bereko abuztuan kreditu hipotekarioa ordaintzeari ere utziko dio, arrazoi berdinengatik.



Goian, itxialdia hasi aurretik zabaldutako bideoa. Erdian, goiz partean egindako elkartasun bilkura. Behean, lortutako akordioa eskuetan duela.

Caja Rural dirua eta interesak eskatzen

Eta 2013ko uztailean Caja Rural bere kontra hasiko da: ordaintzeko zeuzkanak eta ohiko interesak eskatuko dizkio, guztira 83.000 eurotik gora. Interes horiek puzten joan dira eta urte bereko azarorako 100.400 euro baino gehiago eskatzen dizkiote.

Ez hori bakarrik: Rodrigoren amari, berme-emailea delako, dirua enbargatzen hasten dira, 188,6 euro hilabetea 2012ko azarotik 2013ko maiatzera, guztira 1.320 euro —gogoratu kreditu pertsonaletik 1.280 zeuzkala ordaintzeko Rodrigok—, eta oraindik beste 1.000 ordaindu behar dituela dio Ruralek, “sortu dituen gastuengatik”.

Azkenik, eta horregatik urriaren 2ko protesta, Rodrigok jakiten du bere etxea enkantean salduko dutela. Hori saihesteko, itxialdia egin duen arte finantza erakunde-ko bulegoan egin dioten proposamen bakarra da hilero 200 euro ordaintzen hasia kreditu pertsonalaren zorra kitatzeko. Behin hori eginda, beste kredituaren kontua nola argitu aztertuko dutela esana zioten.

Rodrigok bestelako proposamena egin du: etxea hipotekaren truke ematea.

Eta itxialdiarekin, eta Pello Gastearena Atarrabiako alkatearen (Bildu) bitartekaritzarekin, lortu du helburua. ■





Lehenengo zenbakia urriaren 6an aurkeztu zuten.

‘Geuria’ hilabetekaria eta webgunea abian dira Hego Uriben

AZKEN URTEOTAN, euskarazko prentsa egiteko saiakera bat baino gehiago izan dira Bizkaiko Hego Uribe eskualdean, baina denek egin dute porrot lehenago edo geroago. Geuria proiektua Basauriko Euskara Aholku Batzordetik sortu da eta Udalak diruz babestu du.

Basaurin, Galdakaon, Arrigorriagan, Etxebarrian eta Zaratanon hilabetekariaren 10.000 ale banatuko dira. Gune publikoetan egongo da Geuria eta etxean jaso ahal izateko eskaera egin behar da.

Bi langile izango ditu egitasmoak (Jon Villapún izango da zuzendaria) eta horrez gain, kolaboratzaileak eta bizilagunak ezinbestekoak izango dira. Esate baterako, hilerro erredakzio bilera irekiak antolatuko dituzte herrietako eta auzoetako bizilagunek aldizkarian eta webgunean landu nahiko lituzketen gaiak proposatzeko.

Basaurin euskarazko azken aldizkaria 2012ko urtarrilean desagertu zen. *Berba*x hedabidea 2010eko urrian abiatu zuen Sustraiak Fundazioak, bizkaieraz.

Eusko Jaurlaritzak B eredua sortuko du Lanbide Heziketan

DERRIGORREZKO Bigarren Hezikuntzan, A, B eta D ereduak daude, eta D eredua da nagusi. Lanbide Heziketara jauzi egindakoan ordea, D eredura baino A eredura jotzen dute ikasleek. Horixe Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak B eredua sortzeko emandako argudioetako bat, helburua euskarazko irakaskuntza sustatzea baita.

2013-2014 ikasturtean, DBHn, ikasleen %61,3k ikasi zuen D ereduan, %26,75ek B ereduan eta %11,3k A ereduan. Ikasturte berean, Lanbide Heziketako datuak ondokoak dira: A ereduan %75 eta D ereduan %23,4. Hasi berria den ikasturtean, ikasleen %27k aukeratu du D eredua; iazkoarekin alderatuta hazkundea %12,5ekoa da.

Eusko Jaurlaritzak legealdi honetan Euskadiko Lanbide Heziketako Legea aurkeztuko du eta hor koka-tuko du B ereduaren sorrera.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

“Estatu kolpea” Kutzabanken?

KUTXABANKEN egiazko “estatu kolpe” baten atarian gaude, Espainiako Gobernuak martxan jarri eta EAJk, PSEk eta PPk babestutako dinamika politikoa gelditzen ez badugu behintzat. Abenduaren 31rako konponduta behar du. Eta presa handia dago hurrengo hauteskundeen ondorioz aldatu daitezkeen indar orekak blindatzeko. Martxan dago aurrezki kutxak banku fundazio bihurtzeko prozesua. Hala, Kutzabanken gaineko kontrola galduko litzateke, akziodun pribatuak sartuko direlako. Hau da, euskal finantza sistemaren ardatza den egungo Kutzabank, pribatua izatera igaroko litzateke. Bere ondarea 100 urtetan zehar osatu da euskal herritarren aurrezkiekin. Ondare hori garapen ekonomiko, industrial eta sozialerako bideratu liteke, baita gizarte ekintzarako ere. Pribatizatuz gero, akzionista eta inbertitzaile pribatueta pasako litzateke. Egiazko “estatu kolpea”: kontrol publiko eta soziala duen entitate izatetik, kapital pribatuaren interesetara dagoen sozietate izatera.

Euskal jendartearen badaude alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialak bide horren kontrako jarrera azaldu dutenak. Zenbaitek alternatiba ere proposatu dute Kutzabanketik erakunde publiko eta demokratiko gisa jardun dezan. Ildo horretan, batzuk lanean ari dira pribatizatze helburu hori eragotziko lukeen marea sozial bat sortzeko. Kutzabank Publikoa plata-forma herri guztietan ari da hitzaldi, eztabaida eta mobilizazioen bidez marea hori sustatzen. Herritarren aurrezkiak ez galtzea da lehentasuna, gizarte ongintza bermatzea eta finantza erakundeari etorkizun ekonomiko eta demokratiko bat ematea. Horretarako, aurrezki kutxa tradizionalen oinardeko den Kutzabanketik kontrol publiko eta soziala eduki behar du, Euskal Herriaren zerbitzura egon. Eta ez inbertitzaileen interes pribatuaren menpe.

Juan Mari Arregi



Langilea hil da karoshiak itota: Japoniako epidemia

Urte luzetako eskari eta mobilizazioen ondoren, Japoniako Parlamentuak lehenbiziko aldiz onartu du lege bat langileen biziak arriskuan jartzen dituzten lanordu luzeegien kontrolatzen hasteko. Uste da urtero 8.000 japoniarrek egiten duela bere buruaz beste lan neketsuegiaren ondorioz eta 10.000 gehiago arazo berak eragindako gaixotasunez.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

TOKIOKO DIETAK 30 urte behar izan ditu *karoshia* jasandako jendearen arazoa bere gain hartzeko. Gehiegizko lanak hiltzea da *karoshi*; nozitu duenari *karojisatsu* deritzo. 1969an erabili zen lehenbizikoz, 29 urteko gazte bat bihotzekoak jota hil zelarik Tokioko egunkari handienaren erredakzioan. 1970eko hamarkada bukaeran hasi ziren sindikatu eta ekintzaileak borrokan lanak itota hildakoentzako kalte-ordainak eta aitortza lortzeko.

Urte luzez hitzaldi, liburu, biltzar eta klase guztietako kanpainekin fruiturik lortu gabe, duela bi urte milioi erdi sinadura bildurik lege proposamena aurkeztu zuten parlamentuan, *karoshia* prebenitzeko. Legea onartzea lorturik, orain hasiko da lantokietan mamitzeko lana, burokraziaren amaraunean galtzeko eta Japoniako patronal boteretsuak ur-ardotzeko arriskuen artean.

Osakako unibertsitatean soziologiako irakasle den Scott Northek *karoshi* fenomenoaz azaldu du bi artikulu interesgarritan: *Asia Times*en plazaratu “*Japan tackles the karoshi taboo*” (Japoniak eraitsi du karoshiaren tabua) eta Red Peppergunean emandako “*Japanese workers’ fight against karoshi*” (Langile japoniarrak karoshiaren kontra).

Northek kontatu duenez, 1970eko hamarkada bukaeran

petrolioaren shocka gertatu arte enplegu gehienak finko eta ia betirakoak ziren Japonian, ordainetan ugazabak obreroei lanik gogorrenak ere txintik atera gabe burutzea eskatzen zielarik. Enpresa japoniarren kultura paternalista aldatu zen, petrolioaren krisiarekin lehiakortasuna lehenetsi zutenean, globalizatzen ari zen merkatuan nagusitzeko langile ez finko eta ez arautuetara joz. Ordura arte enplegu osoaren %10a zirenak 1990ean %40 ziren.

Arauen lasaitzearen ondorioz japoniarrak *per capita* burutzen dituzten lan orduak jaitsi egin diren arren, langile finkoen lanaldiak 1960koen pare jarraitzen du: 53 ordu asteko. 40 orduren muga aipatzea ezkerkeria dirudi hemen.

Nabarmendu behar da, hala ere, 53 ordu horietan ez direla kontabilitzatzen langileek borondatez eta inolako dirurik gabe sartutako ordu kopuru izugarria. Japoniarren lehiakortasuna goraiatzeko duenak azaldu beharko luke enplegudunek hemen doan sartutako ordu estrak ugaritu egin direla 20 urteotan.

Korporazioek produkzioarako erabiltzen dituzten langile ez finkoak gehienetan zuzenean berenak ez diren kontratatzen ari direnez, firma handietako langile finkoak ahalegin handiago eta bereziagoa egin behar dute, bai kanpora bidalitako jardue-

Japan Daily Pressek interneten jarritako argazkian, langile gazteak leher eginda lotan Tokioko geltoki batean. Lanaren Nazioarteko Erakundeak “*Case Study: Karoshi: Death from overwork*” ikerlanean aipatzen ditu zenbait adibide tipiko. “A jaunak janariak prozesatzeko konpainia handi batean lanean ari zela asteen (ez hilabeteen) 110 ordu sartzen zituen eta 34 urterekin hil zen bihotzekoak jota. B jaunaren heriotza ere lanari egotzi zaio. Autobus gidaria, urtean 3.000 orduz goiti ari zen. 37 urterekin bihotzekoak jota hil aurreko 15 egunetan ez zuen jairik eduki. C jaunak Tokioko inprimategi handi batean urteko 4.320 ordu sartzen zituen, gaueko erreleboak barne; bihotzekoak jota hil zen 58 urterekin. Bere alargunak kalte-ordainak 14 urte geroago lortu zituen. D andereñoa, 22 urteko erizaina, bihotzeko atakez hil zen hila-bete batean bost aldiz 34 orduko lanaldi etenik gabeak egiten aritu ostean”.

ra horien emaitzak ondo lotzeko eta bai beren elite estatusa (antzina “aristokrazia obreroaren estatusa” esango zitzaion) mantentzeko.

Ugazabek jauzia egin zuten enpresen kudeaketan, alde batera utzi korporazioetan zentratutako langileen prestaketa, eta haiekiko lotura oso garrantzitsutzat jotzen zuen antolaketa zaharra abandonaturik merkatuari begirako *management* estilora aldatu ziren.

“Japoniarren usadioa zen —dio Scott Northek— lan egitea paternalismoaz tratatzen zituzten nagusien mende, baina harreman mota hori aldatu egin zen AEBetakoaren gisako harreman neoliberalak zabaldu zirenean”.

Astean 60 ordu

Petrolioaren lehenbiziko krisiaren ostean, 1980ko hamarkadan, korporazio handiek ezarritako birmoldaketa basatien kontra langileek hasitako grebetan oraindik antzinako enpresetako moralitatea exijitzen omen zuten. Scott Northen hitzetan, “beren aldarrikapenak ez ziren oinarritzen legeak emandako eskubideetan, aitzitik, beren menpekotasunean sakontzen zuten. Ugazabek segitu zuten korporazioak familia bailira defenditzen langileei sakrifizio gero eta handiagoak eskatzeko”.



Baina enpresetan baldintza berriengatik gehiegikeriak ugari-tzeaz batera medikuek erakutsi zuten lanaldi astunegien zamak eta estresak zerikusia bazutela eritasun kardiobaskularrekin eta depresioekin. Enplegatuak bezala hildakoen familiak ohartu ziren enpresek ez zutela errespetatzen langileak zaintzeko hitzarmen zaharra, betekizun sozialak baztertuta zituztela.

Northek honela azaldu du japoniarren mentalitatean gertatutako arrakala sakona: “Japonian uste da ez dela morala norbere eskubideetan gehiegi tematzea egokitu zaiona onartzeko orde. Hierarkia sozialari desafio egiteko eta arazo pertsonal bat arazo sozial bilakatzeko justifikazio onargarri bakarra menpeko

baten heriotza da”.

Lanagatiko heriotza eta gaixotasunen biktimek sindikalisten laguntzarekin bide luzea egin behar izan zuten urte haietan. Abokatu talde batek doako telefono zerbitzua antolatu zuen lanagatik hildakoen familiak laguntzeko korporazioak auzitara eramaten. Borroka juridikoarekin batera, legeria aldatzeko kanpaina politikoa burutu zuten. Lehen garaietan handia 1994an lortu zuten, Japoniako Gobernuak lehenbizikoz *karoshi* hitza erabili zuenean.

Gogor saiatu behar izan dute ekintzaileok lanagatiko heriotzak daukan esanahiaren eremua zabaltzen ere. Urte luzez japoniarren kulturen laneko istripuztat ez ziren onartzen lantokian bertan eta herio-

tzaren egun berean gertatutakoak besterik, gainerakoek ez zuten kalte-ordainik. Demostratu zenean beharrean metatutako neke handiegia hainbat arazo kardiobaskular eragiten zituela, administrazioa bezala epaileak ere hasi ziren zabaltzen arazoaren eta heriotzaren arteko epea, aste bete, hilabete, sei hilabete...

2001ean Tokioko Auzitegi Gorenera iritsi zen bere burua hil zuen gazte baten kasua. Hau enplegatzen zuen publizitate enpresari egotzi zion erantzukizuna epaileak, argudiatuz ugazaba dela bere obreroen lan baldintzen arduradun eta hauen osasunaren bermatzaile.

2014ko lege berriarekin borroka berriei egin beharko diete aurre ekintzaileek. Legeak berak dauzkan ahuleziez gain (lan orduen mugarik ez du aipatu ere egiten, esaterako), legea arau zehatzetan mamitzeko burokraziak jarriko dituen oztupoak daude batetik. Aldi berean, korporazioak dagoeneko ari dira bultzatzen legearen emaitzak ur-ardotzeko: haizea alde daukate mundu osoan nagusitu den ultra-liberalismoarekin.

Scott Northek nabarmendu duenez, hildakoak ez dira icebergaren puntta baizik, baldintza berdinetan ari baitira beste asko. Langile gazteen %20 ari dira astean 60 ordu baino gehiago sartzen, edo hilean 80 ordu estra egiten. “Horiek denak ari dira *karoshiaren* lerroaren gainetik. Horietan babesten dira enpresa-buruak epaiketetan: hildakoak arazoren bat edukiko zuen, beste asko ari baitira gauza bera egiten primeran”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Batu, ez eragotzi

HITZEMAN programa aurkeztu berri du Jonan Fernandez zuzendari duen Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzak, presoan bergizarteratzea helburu eta, funtsean, euskal presoan gaian kontsentsuzko irtenbide bat bideratu guran. Sakabana-ketarekin amaitzea helburua duen Sare ekimenak ere bere aurkezpena egin zuen hilaren 20an Bilbon, bide klasikoagoak erabiliz, baina ohiko atxikimendu eta jarduera esparrua zabalduz. Abenduan, halaber, urtebete egingo da Euskal Preso Politikoen Kolektiboak erabaki zuenetik preso bakoitzak bere eskaerak modu indibiduallean egin ahal izango zituela Espainiako Justiziaren aurrean. Urtarrileko ohiko presoan aldeko manifestazioa ere ate joka da dagoeneko.

Hainbat esparrutatik, beraz, presoan gaia berpiztuko da datozen hilabeteetan, gizarteari arazoa hor dagoela gogoratuz. Bai, funtsean, preso eta haien senideek pairatzen dute euren larrutan Espainiako Gobernuaren espetxe politika, baina euskal gizarte osoari eragiten dio neurri batean edo bestean. Bizi izandako gatazka bortitzaren ondorioz latzena da gaur gaurkoz eta, nahitaez, testuinguru horretan bideratu beharko da arazoa bera ere.

Testuinguru hori, aldiz, aldapa gorakoa da eta, oraingoan behintzat, ekimen guztiek egiten dute topo PPren mendeku politikarekin. Eta denak adierazten du hor ez dela aldaketarik izango legealdiaren amaiera arte. Hurrengo legealdiak egoera berria ekarriko du Espainian eta horrek ekar dezake baita ere bultzada berri bat presoan esparruan.

soen esparruan. Bitartean, euskal gizarteari dagokio bultzada egitea, hori gabe nekez sortu ahal izango delako egoera berririk. Instituzioetako bultzada erabakigarria izango da bere unean, baina hau ez da behar bezala aktibatuko mobilizazio sozial sendo batek horretarako giro aproposa sortzen ez badu.

ARTIKULU honen lehen paragrafoan aipatutako presoan inguruko ekimen guztiek dituzte euren argi itzalak. Hitzemanen bidez Jaurlaritzak aurrera egiteko borondatea erakusten du, baina ez beste giza eskubide batzuen zanaketa-rekin egin ohi duen indar berberarekin, kontsentsuak hori eskatzen duelakoan. Elkarriren bitartekaritza ingeniariaritzaren estiloa begi bistakoa da Fernandez zuzendaritzaren

Hurrengo legealdiak egoera berria ekarriko du Espainian eta horrek ekar dezake baita ere bultzada berri bat presoan esparruan

ren ekimenetan, eta hari desberdinak lotzea berez gaitza bada, oraingoan Jaurlaritzako erakunde ofizial batek dituen muga guztiekin egin behar du zementu lan hori. Eta aurrez aurre harresi erraldoia dagoenean, aintzat hartzekoak dira berau gainditzeko bideratutako ekimen guztiak. Ongi etorria paretan zuloak eragin ditzaketan edozelako ekimenei, baina une batetik aurrera, ezer gutxi egin daiteke aldarrikapena eta salaketatik harago.

Funtsean, Hitzeman bergizarteratze programa presoek iraganera egin behar duten begirada kritikoa oinarritzen da, baina hori nekez


egin daiteke modu txukunean gizarteak berak —adostutako bake prozesu batean edo nahi den moldean— gauza bera egiten ez badu. Iraganarekiko begiradarena da gatazka bortitzak bizi izan dituzten gizarteetako arazorik arantzatsuenetakoa eta hori ezin da bakarrik bideratu presoek egin beharreko autokritika horrekin. Haiek ere euren egin beharko dute, baina ez da ez justua ez eraginkorra hori presoek bakarrik eskatzea. Begirada kritiko horrek ezker abertzaleak 50 urtetako historiari uko egitea nahi badu jai izango du. Ez da munduan armak hartu eta bere ibilbide osoa ukatu duen mugimendurik, eta ez da lehena izango ETA.

Era batera ala bestera, presoak kaleratzearen bidea egin egin behar da, eta une honetan, presoan kolektiboak eta ezker abertzaleak aldapa goran egin behar dute ibilbide hori: Madrilgo boikotarekin, gizartearen zati handi baten indiferentziarekin eta ETAk borroka armatua negoziatzeko prozesu batetik at eta beranduegi utzi izanak ematen dion ahuldadearekin.

Krisia eta Kataluniako egoeraren ondorioz sasoi berrien etorrera antzematen da Espainian. Aro berri horrek eman beharko luke baita ere euskal gatazkaren zauriak hainbestetan aipatu den modu ordenatu horretan bideratzeko aukera. Bitartean, bakoitzak bere lubakitik ekin beharko dio, bestearen ekimenetik baliagarriena indartuz eta gustuko ez dena baztertuz, baina bidea zangotrabatzeko erabili barik. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1




Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

2



Inguru Abentura

Espeleologia

4 lagunentzako
bina saio

San Juan 18,
Albeniz-Azparrena ARABA

www.inguruabentura.com

3



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2429. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Narcisa Urreiziti Basterretxea (Mutriku)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)
- Berta Zumalde Goitia (Donostia)
- Arkaitz Sodupe Intxausti (Segura)
- Garazi Cristobal Azkarate (Urruña)

HERRI OHIUA - "Ez" CDa

- Eneko Fernandez Artigas (Sopela)
- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Ostolaza Udal Liburutegia (Deba)
- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

BIXENTE AMEZTOVren ARGIA azalak

- Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Amaia Goitia Saenz de Buruaga (Gasteiz)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Petti

Kursaal ganbera aretoa
Urriak 24 - 20:00tan - 15€



EP Disko berriaren
Aurkezpena

Musikariak: **Iñigo & Igor Telletxea, Rafa Aceves, Osoron (Gose)**



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Sarrerak:

· Victoria Eugenia Antzokia
· www.kutxasarrerak.net
· Takila **20 €**

